

K...eta Kitto!


2020-1-24

1127 zkia.



Pello Osoro

Bat, bi, hiru: triatloiaz gozatzan



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

www.urrategiinteriorismo.com

dica ® www.dica.es

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943857244


Arragueta 27
20600
Eibar
943857244





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOAK: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Pello Osoro

BANAKETA-ARDURA:
Idoia Labado

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta inntzien erantzunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

Bizi baldintza duinak behar ditugulako, urtarrilaren 30ean grebara

Arrazoiak badaude eta horregatik, urtarrilaren 30erako Eskubide Sozialen Kartak deitutako grebarekin bat egingo dugu EH Bilduko kideok.

Prekariatatearen aurrean, bizi-baldintza duinak aldarrikatzen ditugu. Urtarrilaren 30ean kalera aterako gara erabaki politikoen erdigunean bizitza jartzeko eta hauek elite ekonomikoen interesen menpe ez egoteko. Kalean izango gara herri duin batean, bizitza duin bat aldarrikatzeko. Azken urteetan hartu diren erabaki politiko zein instituzionalek herritarren bizi baldintzei eragiten diete zuzenean. Prekariatatea da milaka herritarren bizi baldintzatzen duen elementu nagusia. Eta hori gertatzen da elite ekonomikoen interesak herritarren interesei gailentzen zaizkielako. Ereduek asko dira; adibidez, lan erreforma edo pentsioak ez gaurkotzea. Baina horien izebergaren punta baino ez dira. Gaur egungo sistemak gehien daukaten pertsonak saritzen ditu gutxien daukatenean kontura. Langileen bizitza gero eta prekarioagoa da haien baldintza ekonomikoei, lan baldintzei, pertsonen zaintzari eta osasunari eraginez.

Izan ere, Jaurilaritzaren arabera probrezia %46 igo da Euskal Autonomia Erkidegoan azkeneko urteetan eta 200.000 pertsona probrezia arriskuan daude; pen-

tsionisten erosteko ahalmenak %6 egin du behera eta sinatzen diren kontratuen %92 behin-behinekoak dira, besteak beste.

Gipuzkoako langabezia tasa %8,59koa den bitartean, Eibarko langabezia tasa %12,26koa da, Gipuzkoako altuenetarikoa. Gainera, nahiz eta herritar batzuen per capita errentak gora egin duen, probrezia mailak ere gora egin du gure herrian. Beraz, Eibarren, gizarte arrakala gero eta handiagoa eta nabarmenagoa da. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (RGI) dagokionez, 751 espediente daude altan gure herrian eta horietatik %42a pentsioak eta soldatak osatzeko dira. Langile eta pentsiodun probreak. Gainera, Larrialdietarako Dirulaguntzak aztertuta, Eibarko probreziaren aurpegi nagusienetako bat emakumea, alarguna eta pentsioduna dela baieztatu dezakegu.

Agerikoa da badaudela arrazoiak Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitutako greba orokorrean parte hartzeko eta EH Bilduko kideok ere bertan izango gara. Unea heldu da prekariatatean oinarritutako sistema bati erantzuteko eta, bizi-baldintzak erdigunean jarriz, haien herritarrek zaintzen eta babesten dituen herri baten alde egiteko.

Eibarko EH Bildu

Hilaren 30eko grebaren inguruan

Datorren asteko eguenerako deitutako grebarekin bat egingo dugunez, ale horretarako informazioa eta zoria agurrak jasotzeko egun bat gutxiago izango dugu. Eguaztenean izan beharrean, martitzenean itxiko dugu tarte hori; inprentara ere, eguenean bidali beharrean, eguaztenerako bidali beharko dugulako. Astekaria, dena dela, betiko moduan banatuko dugu, hau da, barixakuan, eguerditik aurrera. Barkatu eragozpenak.

...eta kitto! Euskara Elkarte

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MOROKIL.- Uretan arto-irinarekin egosiz egiten den jateko ore lodixa. *"Morokilla ugari dago gaurko afaittan".*

Lodia, mordoiloa. Morokila moduko lodia. *"Egin dozun ahixa, morokillegixa dago".*

astean esanak

"Hiztun masa handia daukagu, baina daukagun tresnak behar bezala erabili behar dira. Hau da, hedabideak eta hezkuntza sistema. Eskoletan adizkiak ikasten egon behar baino hobe genuke hitanoa jolas moduan erakutsi, edo hitz elkarketekin loreak nola sortu daitezkeen erakutsi. Nik egiten tudan ikastaroetan hitz batzuk sortzen ditugu, eta oso ondo pasatzen dugu. Eta horiek nola hedatzen dira ondoren? Zer egiten du Gazteak horretaz arduratu gabe? Tiraderan gorde, besterik ez"

(JOXERRA GARZIA, IRAKASLE-OHIA)

"Iruditeria sozialean badirudi itxizko kapitulu dela, baina datuek gorakada erakusten dute heroinaren kontsumoan. Galizia eta Kolonbiako sareek erabaki zuten Euskal Herria ez zela bitartekaria izango, estrategikoa baizik. Hemen egon da euskal oasiaren ideia bultzatzeko nahia; baina, jakina, horretarako beharrezkoa zen narkotrafikoaren inguruko albisteak ezkutatzea, garrantzi handirik ez ematea, irudi hori lausotzen zutelako. Ondorioa izan da narkotrafikoaren hemengo buruek halako zigorgabetasun sentsazio bat izan dutela, eta Galiziakoek eta Andaluziakoek baino ibilbide luzeagoak egitea"

(AHOZTAR ZELAIETA, KAZETARI ETA IDAZLEA)

"Espresio batzuek estetika baliotsu bat edukitzeak justifikatzen du eduki brutalak errealitatean ikustearen gozamena sentimendu noble bat izatea? Ba, nik umetan... Jakina! Argi dago ume sen batzuk kriminalak direla. Errealitatea zer den edo zer izan daitezkeen badakigu. Baina fikzio batek zergatik iritsi behar du, efektiboan izan dadin, artearen halako mailara, zehaztasun eta xehetasun guztiekin? Arte hori ez da zabor-arte bakarrik, gustu txarragatik gustatu ahal zaizuna. Arte hori arte biolentoa da. Funtzionatzen duela? Ba, bai. Ikusleok gehiegi daukagu sen biolentotik"

(XABIER AMURIZA, IDAZLEA)

BNI Armagin Eibar enpresa-taldiak 3. urteurrena ospatuko dau

Hiru urteko ibilbidia ospatzeko ekitaldi berezixa egingo dabe BNI Armagin Eibar enpresa taldekuak datorren astian, urtarrillaren 31n, 13:00etatik 15:00etara Eibarko Armagintzaren Museuan. Aurreratu dabenez, bertan Udaleko eta Debegesako ordezkariak egongo dira, eskualdeko hainbat enpresabururekin batera. Aitor Buendia kazetarixak zuzendutako ekitaldixa izango da eta, ondoren, parte-hartzaillien dako luntxa egongo da.

BNI Armagin Eibar oin dala hiru urte hasi zan biharrin, *“taldeko kidien artian sinergiak sortzeko eta negozio-aukerak sustatzeko”* asmuarekin. Ordutik hasitza eta gaur arte, 6.759.454 euro fakturatu ditte taldiak, *“kidien artian alkar trukatu daben negozixuari esker”*.

Era guztietako eta sektore diferentietako enpresak osatzen dabe taldia: enpresa industrialak, aseguruak, eraikun-



tzakuak, informatika arlokuak, automobillak saltzen dittuenak, higieziñen ingurukuak... Lander Abarategi Armagin Eibar BNIko presidentiaren berbetan, *“negozioa egitteko gogua dakan edozeiñendako tokixa dago taldian”*. Esaten dabenez, *“billera-sistemari, talde-*

lanari eta alkarri laguntzeko filosofixari esker, taldekidiak euren enpresen fakturaziñua eta negozio-aukerak haunditutu dittue”. Ekitaldira jua edo BNI Armagin Eibarri buruzko informaziño gehixago nahi izanez gero, 639 257 983 telefono zenbakira deittu leike (Lander).

Kalian bizi diranendako Neguko Protokolua martxan jartzeko eskatu dabe

EH Bilduk etxegabiendako Neguko Protokolua atzera be martxan jartzeko eskatu dau Bozera maillien Batzordian, baita Gizartekintza Batzordian be. Azaldutakuaren arabera, *“2019an egin zan Etxegabiendako Neguko Protokoluaren lehen saiakeria, EH Bilduk bultzautu. 2020ko negua gogorragua izaten dihardu eta PSOEren Udal Gobernuak ez dau protokolu berreskuratu. Badirudi PSOEk gaixa erabat ahaztuta zekala. Hori da etxegabienganako alderdi sozialistak dakan begirunia?”*.

Gizarte Zerbitzuetako Maparen arabera, Debabarrenean aterpetxia biharrezkoa dala gogora ekarri nahi dabe, euren eritiz, gaiñera, Eibarren kokatu biharko litzatekeela gaiñerata: *“Etxegabiendako aterpetxia martxan egon arte, berebiziko garrantzixa daka benetako Neguko Protokolo integrala eukitzia. Ezin da behin martxan jarri eta hurrengo urtian ideia baztertu. EH Bildurendako hori ez da bape serixua”*.



“Etxegabiendako aterpetxia martxan egon arte, berebiziko garrantzixa daka benetako Neguko Protokolo integrala eukitzia. Ezin da behin martxan jarri eta hurrengo urtian ideia baztertu. EH Bildurendako hori ez da bape serixua”.



Eibartarrak txapeldun jubilau etxien arteko billar topaketan



Untzagako jubilau etxeuak, Casino Artista Eibarresekin alkarlanian, eguaztenian Zumarragan jokatu zan jubilau etxien arteko I. Billar Topaketan parte hartzen egon ziran eta bikote txapelduna Fernando Berriozabal eta Antonio Sanchez eibartarrak osatutakoa izan zan. Untzagako jubilau etxeuarekin batera, Urretxu, Bergara eta Zumarragako jubilau etxeuak aritu ziran: danak danen kontra jokatzeko, hiru partidara jokatzin ibilli ziran, bikoteka eta 60 karanbolatara. Zorionak bikote!




Urteko batzarra egin dabe Pagatxa alkartekuak

Pagatxa emakumien alkartekuak urteko batzarra egin barri dabe. Aurreko urtiaren balantzia eta proiektu barrixak aurkeztiaz gain, bazkidiak ideiak jasotzeko tartia egon zan eta, amaieran, La Novena-Ilkasteren antzerki taldekuak saiaua eskindu eben: Isa Gonzalez eta Ernesto Barrutia antzezleekin batera, Vicente Beldak jardun eban gitarrarekin eta pianoarekin laguntzen, barriz, Juan Luis Agirre aritu zan. Bestalde, Pagatxak urtero egitten daben bazkaria otsaillaren 8xan izango da Unzaga Plaza hotelian eta juan nahi dabenak hotelian bertan dauka txartela erosteko aukeria.



autuan



AUKERATU DUTE ARATOSTIETARAKO KARTELA

Joseba Imanol Vilas donostiarraren "Kolorez mozorrotutak" izenburuko kartelak irabazi dau aurtengo Aratostiatarako lehiaketia. Umien maillan, barriz, Marina Garate saritu dabe 11-14 urte bittartekuen maillan eta 10 urtetik beherakuen maillan, Maider Iglesias izan da irabazlia. Ediziño honetara 73 lan aurkeztu dittue eta horretatik 18 lehiatu dira helduen maillan.



centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ 943 12 02 00 – 943 12 02 04

- Análisi Klinikoak
- Barne Medikuntza
- Dermatologia
- Dietetika / Nutrizioa
- Erizaintza
- Familia medikua
- Fisioterapia
- Foto-depilazio Unitatea
- Kardiologia
- Kirurgia
- Kirurgia (aurpegi-masaila)
- Kirurgia baskularra
- Koloproktologia
- Neurofisiologia
- Ortodontzia
- Otorrinolaringologia
- Psikologia
- Radiologia
- Traumatologia
- Urologia



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
 Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
 SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
 erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
 Taldea

GRUPO
funeuskadi

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Ipuruako plazaren erabilleria adosteko parte-hartze prozesua abiatuko da otsaillian

Auzoko talde baten ekimenez ipiñiko dabe martxan otsaillian Ipuruako merkatu zaharra birgaitzeko parte-hartze prozesua. Talde horrek "Ipuruako merkatu plaza: Auzoko gunea" izeneko proiektua bultzatzen dau eta datorren hillian hasiko daben ekimenarekin, "eraikin hori auzokuen eta eibartarren topalekua izatia, adin guztietako herritarrendako aisialdi hezitzaillia landuko daben gune irekixaren bittartez" lortu nahi dabe. Parte-hartze prozesua aurrera eruateko Udalak Emun Aholkularitza kontratau dau, "eraikiñaren erabillerarako aukerak zihezteko, eta tokixa dinamizatzeke eta antolatzeke ereduak definitzeke".

Hiru saio egingo dittue Ipuruako merkatuko eraikiñian bertan, parte hartu nahi daben herritar guztieri zabalik eta lehena otsai-



llaren 5ian izango da, 18:00etan. Saio guztietarako haurtzaindegi zerbitzua eskinduko dabe, Jazinto Olabeke ludotekan. Beste bi saioak, barriz, martxuan eta apirillian izatia dago aurreikusitta.

Ederto murgildu ziran Nepalgo sukaldaritzan Munduko Janari taillarrera juandakuak

Martitzenian Nepalgo sukaldaritza bertatik bertara ezagutzeke aukera bikaña euki eben ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen daben Munduko Janarixak taillarrian parte hartu ebenak:

aza, kipula eta gari-urunaekin egitten diran "pakoda" izeneko kroketa modukuak zelan preparatzen diran ikasi eben Portaleko sukaldian alkartutako zortzi lagunak eta, esandakuen arabera, "taillarra oso giro onian egin zan. Emaitzak be oso onak izan ziran, jatekua preparatzeko erreza eta oso goxua izan zan eta". Munduko Janarixak egitasmuaren hurrengo saia otsaillaren 25ian izango da.



Gaur ipiñiko dabe martxan Amañako igogaillua

Tiburtzio Anitua eta Karlos Elgezua kaliak lotzen dittuan igogaillua gaur goizian ipiñi dabe martxan. Biharrak iazko apirillian hasi zittuen Obras Especiales Edificacion e Infraestructuras enpresakuak eta aurrekontua 619.845 eurokua izan da. Igogailluarekin hor inguruan bizi diranen akzesibidadia hobetu nahi izan dau Udalak, "toki horretan desnibel haundixa dagualako. Igogailluak jende askori mesede egingo detsa, auzuaren parte hori eta Eibarko erdigunia lotzeko konexiño irisgarririk ez dalako egon oin arte".



Udal aurrekontua onartzeko ados ipiñi dira PSE-EE eta Elkarrekin Podemos

PSE-EE eta Elkarrekin Podemos alderdixetako udal ordezkariak 2020ko udal aurrekontuak onartzeko ados ipiñi dira, astelehenian jakina-razi ebenez. Bixen arteko billetteretan, Elkarrekin Podemosek aurrekontuari aurkeztutako Mirabaso proiektuaren inguruko zuzenketia onartzia erabagi dabe sozialistak, hori aurrekontuari gehittuta. Holan, Sakun eta Milaflores arteko lur-eremuan hainbat ortu sortzeko proiektuari garatzeko bidia zabaldu detse. Horrekin batera,

bardintasunian eta arlo afektibo-sexualian hezitzeko eta ludopatiaren kontrako kanpainaetan erabiltzeko 15.000 euroko partida gehitzia onartu dabe sozialistak. Alkatiaren berbetan, "herriarendako onak diran akordioak lortzeko gure bokaziñua agerixan geratu da beste behin. Nahiz eta Elkarrekin Podemosekin lortu dogun adostasun hau aurrekontua onartuko dala ziurtatzeko nahikua ez izan, albiste ona da, alderdi bixak legegintzaldixari jarrera positibuekin ekin detsagula era-

Sakun eta Milaflores arteko lur-eremuetan ortuak sortzeko proiektuari bidia zabaldu detse.



kusten dabelako". Isabel Fernandez Pejenaute Elkarrekin Podemoseko ordezkariak esan dabenez, "hitzarmena siñatu aurretik, gure alderdiki-

dieri horren inguruan galdetu jakuen eta, %79k babes emon zetsenez, aurrekontuak onartzeko plenuan aldeko bo- tua emongo dogu".



Eusebio Gorritxategi kazetarixa hil da

Aurreko domekan hil zan kazetari lanetan ibilbide luzia egindako Eusebio Gorritxategi eibartarra. Euskal Herritik kanpo jardun zeban batez be, Asturiasko eguneroko komunikabide batian. Halanda be, hainbat kolaboraziño egin zittuan inguruko komunikabidietan, Revista Eibar eta El Diario Vasco-rako kasu. Bestalde, La Voz de Euskadiko bazkide sortzaillietakua be izan zan. Bere hiletak martitzenian egin ziran, San Andres parrokitan.

SD Eibar-A Atletico de Madrid partidu egunian pasautakuaren inguruko adierazpena

Udaleko Bozeramaillien Batzordiak aste honetan egindako bilkuran, gaitzetsi eta jendaurrean salatu dittu aurreko zapatuan, SD Eibar-A Atletico de Madrid partidua jokatu zan egunian gure herrixan izandako gertakarixak. Adostutako adierazpenaren arabera, "Eibarren ez dira onargarrixak probokaziño-jarrerak. Eta herri honetan ez dira iñundik iñora onartuko keiñu eta sinbologia naziak". Horrekin batera, Bozeramaillien Batzordiak herritarren "jokabide arduratsua" aitortu nahi dau, "onartu biharko ez leukiazan probokaziñuetan jausi barik, bakarrik jaiarekin gozatzen eta bere taldia animatzen ibilli ziran herritarren jarrera, hain zuzen be".



w w w . a l d a t z e . e u s

aldatze



**IX. ALDATZE
DENOK GARA**
otsailaren 1ean
11.00etan



20 urte eta gero bueltan da Lorelei. Mikel Gorosabel 'Norton' eta Asier Serranok sortutako taldeak lau kontzertuko bira iragarri zuen abenduan eta dagoeneko jo dute lehenengoa (aurreko barixakuan Andoainen). Loiola Madera (bateria) eta Antxon Sarasua (baxua) lagun, otsailaren 7an Coliseoan kontzertua eskaniko dute. Loreleiren iraganaz, orainaldiaz eta etorkizunaz mintzatu gara Asier Serranorekin, 90. hamarkadaren amaieran euskal musikan mugarrira ezarri zuen taldeaz.

ASIER SERRANO (Lorelei):

“Iraganetik etorritako besarkada handi bat jaso genuen lehen kontzertuan”

- Zer moduzkoa izan zen itzulerako lehen kontzertua Andoainen?

Urduritasun askorekin bizi izan genuen. Ez bakarrik kontzertua bera, baita kontzertu aurrekoak ere. Antzoki handia da eta lau edo bost ordu pasa genituen han sartuta, soinua bilatzen. Soinuaren kaiola horren barruan egoteak larri jartzen zaitu. Lehen kontzertua izanda eta kontzertuetarako erabiltzen dugun sorpresa bat medio, ez genekien zer gertatuko zen. Publikoarekin hasierako hartu-eman oso bat-batekoa izan zen. Gero, la-saitzen joan ginen eta asko gozatu genuen. Jendearen erantzuna itzela izan zen, eta berotasuna, esker ona eta eskuzabaltasuna igarri genuen. Ez dakit zer espero genuen, baina hori ez behintzat. Iraganetik etorritako besarkada handi bat izan zen.

- Orain dela 20 urteko bizipenak etorri zitzaizkizuen burura?

Abuztua eta iraila artean erabaki genuen bueltatzea. Prozesua nahiko luzea izan da kontzertu hauetara heltzeko, eta prozesu horretan iritsi zaizkigu momentu nostalgikoak. Bestetik, entseguetan doinuak erreskatatzeko orduan, berriz kantatzean, ezarria forman dugun ikustean eta gitarretan malgutasunik galdu ez dugun frogatzean, abesti horiek modu batean sartu egin direla igarri dugu. Kontzertuan ez genuen dagoeneko gaudituta ez dagoen momenturik sentitu. Nire kasuan eszenatokiekin adiskidetzeko unea eta erronka berria izan zen, urte askoan horrelako guneetan jo gabe egon naizelako. Lehen akordeak entzutean entzuleentzat sorpresa eta nostalgia uneak izan zirela sentitu genuen.

- Nola bizi izan zenuen eszenatokiekin adiskidetzeko une hori?

20 urteko prozesua izan da niretzat. Inoiz ez naiz izan eszenatoki handien lagun eta hori izan zen Lorelei uzteko arrazoietakoa bat. Deseroso sentitzen nintzen, ez nuen nire sormen lanetarako gune moduan ikusten eta nire bakarkako hiru disko horiek ('Ez esan inori', 2002; 'Gerrari bai', 2003; 'Hoteleko kantuak', 2005) kaleratzea erabaki nuen beste gauza batzuen bila (giro intimagoak, areto txikiagoak...). Momentu batean hori ere ez nuen nahi. Borroka hori izan dut beti eta beti izango dudala uste dut. Eszenatoki gainean eroso sentitzeko, lanketa handia egin behar dut aurretik. Oraingoan ere beldur horrekin jokatu behar izan dut, ez

“Bizitzaren aurrerapausoan denbora gelditzea behar nuen, burbuilatxo bat”



nekielako nola erreakzionatuko nuen (izerdia, urduritasuna, aurreko estetika ezarria tapatu eta zaindu beharra...). Antsietate kiribil batean sartzen zara eta hori ez da batere naturala zure onena emateko. Hala ere, Lorelei bueltatzeko arantza hor zegoen, elur-bola handiagoa ez egiteko. Egia esan, Andoainen kontzertua eskaini genuenetik umorea aldatu egin zait. Niretzat ona izan da. Horrelako txuteak ez dakit harrokeria- edo egotria-dosiak diren, baina bizitzari beste modu batean begiratzeko aukera ematen dizute. Eszenatoki batera igotzea bizitza hartzearen metafora izan daiteke.

- Gizartea eta musikaren mundua asko aldatu dira 20 urte hauetan. Nola eusten diote Loreleiren abestiek aldaketa horri?

Lehen diskoko abestiak sortu genituenean “konplexu bariko diskoa” zela esan zuen Mikelek. Argi genuen ondo sartuko ziren abestiak izango zirela, iraungitze-data luzeko kantuak. Jendearen memorian gordeta geratu dira eta erraza izan da erreskatatzea. Soinu aldetik pop ukitua dute, pop berniza,



“Inoiz elkarrekin kantatu gabeko kantu ezagunak entzungo dira kontzertuan”


eta berniz horrek iraunkortasun bat du. Zuzeneko hauetan soinua apur bat aldatu daiteke, teklatu soinuak zertxobait garbitu edo egokitu ditugulako, baina Loreleik kantuen oinarria eskaintzen du, piroteknariak gabe. Mikelek hori asko babestu eta mimatu izan du beti, abestien mamia eta esentzia. Kantuak gitarra batekin defendatzeko modukoak izan dira eta gero jantzi egin ditugu. Ahalik eta konponketa sotilenak egiten saiatu gara orain. Soinu natural eta organikoetara jo dugu, momentuan jotakoak. Apostu bat da, sinpletasunak eta gauzak kentzeak zenbat aberastu dezakeen ikusteko.

- la ezer esan gabe eten zenuten Loreleiren jarduna eta ezustean itzuli zarete. Zerk bultzatu du itzulera hau?

Bere momentuan ez genuen azalpen askorik eman eta guk nahiko modu naturalean hartu genuen despedida hura. Horrelakoe-tan mamuak, aurretiko juzkuak eta zurrumuruak sortzen direla ikusi genuen, eta ezin zara guztia gezurtatzen hasi. Urte hauetan bueltatzeko asmorik dugun entzun behar izan dugu eta horrelako amuak agertu zaizkigu. Zaila izaten da horrelako proiektu bati berriz ekitea. Egon dira saiakera batzuk, baina zailtasun geografikoak bakarrik edukitzeaz gain (taldekide guztiak herri ezberdinetan bizi izan gara), bakoitzaren bizitzaren planteamenduak eta lehentasunak aldatu egin dira. Bestetik, taldea ikusteko modua-ren inguruan hausnartu behar izan genuen: *“Bira baterako bueltatuko gara? Gero diskoa grabatuko dugu? Gaur egun diskoa kalera-tzeak merezi du?”*. Abuztutik hona baldintza guzti horiek lotu behar izan ditugu eta, printzipioz, lau kontzertu izango dira. Nekea ez dator kontzertuetan egotetik, baizik eta aurreko prestaketatik. Nire kasuan, sasoi batekoa berriz bizitzeko nahia izan da bueltatzeko arrazoi nagusienetako bat. Nostalgiarekin lotura du horrek, baina sormenak edo proiektu berriek pasatutako minentzako ukendua ematen didate. Hau da, iraganeko kontu bat orainera ekartzea etorkizunean ez pentsatzeko. Loreleiren itzulerak hiru denbora horiek ekartzen ditu. Mikelekin (eta Antxonekin eta Loiolarekin) espazio amankomun batean berriz elkartzeko gogoia nuen. Bizitzaren aurrerapausoan berriz ere denbora gelditzea behar nuen, burbuilatxo bat. Azken urteak ez dira errazak izan niretzat, denok ditugu miseriak, eta antidotoa ez, baina



Loreleik 1999an publikatu zuen azken diskoa, “Tatuatu zenidan zerua”.



nolabaiteko ukendua da hau niretzat. Denborari beldurra zergatik diogun erantzuten dio Loreleiren itzulerak. Ez dut esaten heriotza gertu dagoenik, baina hasi gara ikusten sasoi bateko ametsak ez baditugu orain betetzen, berandu izan daitekeela akaso.

- Lau kontzertu izango dira, eta kitto?

Guk ere ez dugu oso argi. Aurreprestaketak oso nekagarriak izan dira eta, gainera, musikaren mundua asko aldatu da. Abar Produzioak lagundu digu bide honetan eta gure baldintza izan da antzokietan jo nahi genuela, giro intimoetara itzuli nahian. Egongo dira eskaintza gehiago, irtengo dira kontzertu berriak. Lehenik lau hauek itxi behar ditugu eta irekita gaude, baina ez dakigu zein formatuarekin jarraitzeko prest gauden.

- Amaitu gabe utzi zenuten hirugarren diskoa gauzatuko duzue? Kontzertu hauetan disko horretako abestiak entzun ahal izango ditugu?

Lehenik gaur egun Lorelei ikustera datorren jendearen aurpegia ezagutu behar

dugu, euren profila, oso galduta gabiltzako horretan. Beraz, ez gara ausartzen ezer aurrekustera. Hirugarren disko horren abestiak hor geratu zitzaizkigun. *“Abesti berriekin bueltatuko gara? Zein formatutan? Grabatu ez genituen iraganeko abestiak ekarriko ditugu?”*. Hainbat galdera egin dizkiogu gure buruari itzulera honetan. Bidaia baterako maleta prestatu behar duzunean, kutxa ireki eta zeri eutsi nahi diozun jakin behar duzu. Nik gero eta argiago dut itzulerek ez dutela traje edo soineko berriak eskatzen. Musikariek sormena bilatzen dugu beti, baina horrek ez du lotura handirik entzuleekin, eurek kantu zaharrak entzun nahi dituztelako. Euren buruan iltzatuta geratu den hori aktibatu nahi dute. Beraz, errepertorio zaharrarekin gabiltza oraingoz. Hala ere, harrিতa gaude, errepertorioaren ordena moldatu egin dugulako eta, horrela, beste istorio bat kontatzen delako. Oso kontzertu arinak izango dira, oso indartsu hasiko direnak eta gero gorantz eta behearantz egingo dutenak. Olatu hori bilatu nahi izan dugu. Nolanahi ere, sorpresak egongo dira eta inoiz elkarrekin kantatu gabeko kantu ezagunak entzungo dira.

- Lau kontzertuak bereziak izango dira zuentzat, baina Eibarkoa are bereziagoa?

Heldu ez zen hirugarren diskoa heldu behar zenean Coliseoan irudikatzen nuen diskoaren aurkezpena, baina hori gertatu aurretik banatu egin ginen eta arantza bat dago hor. Erronka baino gehiago, guretzat ametsa edo ilusioa da Coliseoan jotzea. Etxean joko dugu eta etxekoekin. Emozio partekatua emango dela uste dut.

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ
Instalakuntzak eta konponketak
antena

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ARKITEKTOAK

olatz etxeberrria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberrria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

E.I.T.

ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 50
AJT zihurtasuna S.L.P.
Barrena, 6 - behea ezk.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
TAILERRA: ERREKATXU, 3^{an}

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arikitsaneko Zubian

AROTZAK

ulmar
S.L.

metalezko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.



Lan, pentsio eta bizitza duinen alde Greba Orokorra

Datorren egunerako, urtarrilaren 30erako, greba orokorra deitu du Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak. Grebaren jarraipena ahalik eta zabalena izatea lortzeko asmoz, herrietan greba komiteak sortu dira eta zapatuan Eibarren talde argazkia egin zuten, herritar guztiak grebarekin bat egitera animatzeko asmoz. Greba egunerako hainbat ardatz planteatu dituzte: langileen kasuan, 24 orduko lanuzteak; ikasleak klasera ez joatea; martxoaren 8ko greba feministan moduan, zaintza greba egitea planteatzen da; eta, horrekin batera, kontsumo greba egitea, hau da, egun horretan ezer ez kontsumitzea. **Eibarren bi manifestazio egingo dira: 12:30ean lehena eta 19:00etan bigarrena, Untzatatik abiatuta.**

Greba egunerako egun batzuk baino falta ez direnean, orain arteko parte-hartzea eta jasotako atxikimendu kopurua "handia eta anitza" izaten ari dela adierazi dute greba erregistratu zuten ELA eta LAB sindikatuetako ordezkariak. Urtarrilaren 30eko grebarako 170 batzorde sortu direla jakinarazi dute, "beste greba deialdietan baino gehiago", eta 1.200 enpresak baino gehiagok eman diote atxikimendua. Azpimarratu dutenez, izaera anitzetako enpresek adierazi dute babesa, arlo publiko zein pribatukoak: hezkuntza, garraio eta bestelako sektoretakoak, zein sektore feminizatuak. Tartean dira CAF, Bidelan, Azkoyen edo Bilboko Metroa, besteak beste.

Espainiako gobernu osatu berri den honetan grebarako "arrazoi gehiago" da-goela uste dute, gainera. ELAk puntuz

puntu aztertu du PSOE eta Unidas Podemos estatu espainoleko Gobernuaren legegintzaldi berrirako sinatu duten akordioa eta, sindikatuaren ustez "urria" da sinatutakoa, batez ere urtarrilaren 30ean Euskal Herrian iragarrita dagoen greba orokorrak jasotzen dituen aldarrikapenen aldean. Akordioak Rajoyren Gobernuak onartutako Aurrekontuen Egonkortasunerako Legearen onarpena jasotzea salatu dute, besteak beste, lege horrek gastu publikoa handitzea galarazten duela gogoraraziz. Pentsioei dagokionez, berriz, grebako aldarrikapen taulan "jasotakoa ez duela urrundik ere betetzen" diote. Bestalde, akordioak KPI errearen arabera pentsioak igotzea jasotzen duen arren, iaz alderdi biek gauza bera adostu zutela eta azkenean ez zutela bete nabarmendu dute. Gutxiengo pentsioei da-

gokionez aipamen berezirik ez dela egiten kexatu dira, hauek "hobetuko" dituztela besterik ez dela esaten. Iraunkortasun faktorea kenduko dutelaren promesa ere zalantzan ipintzen dute. Enpleguaren eskubideei dagokionez, Zapateroren Gobernuak aplikatutako lan erreforma ez dela ukitzen azaldu dute. Hala ere, positiboki baloratu dute "premiazoak" ikusten dituzten hiru puntu indargabetzea: gaixoaldi bajek eragindako absentismoa-gatik kaleratzeko aukera, lan hitzarmenaren denbora-eremuari ezarritako mugak eta enpresa-hitzarmenek sektore-hitzarmenekiko duten aplikazio-lehentasuna. Baina, hala ere, gutxiengo soldataren inguruan, PSOEk eta Unidas Podemos lehena osatu zuten akordioarekiko gobernu honek atzerapausoa eman duela uste dute.

-Zergatik erabaki da Greba Orokorra deitzea?

Grebarako deia egiteko arrazoi nagusia honakoa da: elkarretaratzeak, manifestazioak eta bestelakoak egiten bi urte darmatzagu eta orain arte lortu ditugun emaitzak ez dira gure borrokarekin lortzea espero genituenak. Ez dute lan erreforma bertan behera laga behar, ez da lortu 1.200 euroko gutxieneko soldata, ezta kopuru horretatik behera kobratzen duten pentsiodunentzat 1.080 euroko pentsioa ezartzea ere. Azken horren inguruan uste dut hainbat baldintza ezarri beharko liriatekeela. Hau da, kontua ez da pentsioduna izateagatik eta kopuru horretatik behera kobratzeagatik zuzenean 1.080 euro horiek jasotzea, badaudelako bestelako errentak etab. dauzkaten hainbat eta hainbat eta, beraz, bi baldintza horiek bete arren, horrelakoei 1.080 euroko pentsioa ematea ez litzateke bidezkoa gainontzeko guztientzat. Gauzak horrela, greba sindikatuak erregistratu dute eta deialdia, berriz, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak egin du. Azken horren baitan Euskadin gehiengo sindikala osatzen duten sindikatuak eta 100 kolektibo baino gehiago (gazte mugimenduak, talde feministak...) daude. Hala ere, gutxienez badira sei hilabete pentsiodunen mugimenduen ekimenez greba prestatzen hasi zela eta, grebak aurrera egiteko hilabete hauetan sindikatu eta beste kolektiboekin izan ditugun hartuemanen esker, azkenean lortu dugu sindikatuak mugiaraztea.

- Zeintzuk dira grebarekin lortu nahi dituzuen helburu nagusienak?

Europako Karta Sozialak ezartzen duen bezala, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa. Eta hori orain lortzeko arazorik izanez gero, kopuru horretara ailegatu arte egokien ikusten duten moduan konpentsatzeko. Horrekin batera, Gipuzkoako beste toki batzuetan ez bezala, Eibarren alarguntza-pentsioa %100ekoa izatea onartu dugu. Eta eskatzen ditugun beste hainbaten artean pentsioen jasagarritasun faktorea kentzea,



JAVIER GABANTXO (pentsioduna):

“Jendea greba egiteko ilusio eta gogoarekin ikusten dugu”

2011. eta 2013. urteetako lan harremanetarako legeak bertan behera lagatzea, lan arloan emakumeen kaltetan ematen den soldata arrakalarekin amaitzea eta pentsio pribatuak ez saritzea daude, besteak beste.

- Datorren asterako deitu den greba eguna nolakoa izatea espero duzue?

Ez gara igarleak eta, beraz, ezin asmatu zer gertatuko den eguna ailegatu eta ikusi arte. Hala ere, jendeak ilusioa eta gogoia badauela ikusten ari gara. Gu pentsiodunak garen ezin dugu lanuzterik egin, baina horrek ez du esan nahi ezin dugunik greba egin, beste modu batzuk badaude eta: egun horretan egiten diren manifestazio eta mobilizazioetan parte har dezakegu, informazioa banatzen lagundu dezakegu... Horrez gain, kontsumo greba egin dezakegu, hau da, egun horretan ezer ez kontsumitu. Greba dela eta, gizarteko sektore atzerakoien aldetik eraso orokorra ematen ari da, ez noa izenik ematera denok badakigulako zeintzuk

diren. Eta klase-etsaien eta berriki horiei gehitu zaizkien beste hainbaten aldetik ere eraso dago. Hasi dira esaten greba politikoa dela, soberanista... Gutxieneko 1.080 euroko pentsioak, 1.200 euroko gutxieneko soldata eta horrelakoak eskatzen ditugu, guztiak eskaera sozialak dira, baina hala ere greba politikoa dela esaten jarraitu nahi badute, ba segi dezatela esaten! Espainian nagusi diren alderdi politiko eta sindikatu batzuk ere, tartean CC.OO., grebari kontra egiten ari dira zuzen-zuzenean. Eta gauza bera egiten dihardu COESPE pentsioen sistema publikoaren aldeko estatu mailako koordinakundeak, baina denok dakigu horien atzean nor dagoen. Gainera, langileen, gizartearen, gu guztion kontrako neurriak onartzea... ez al da hori politikoa? Horrelakoen aurrean borrokatzen jarraituko dugu. Izan ere, gaur egungo jubilatuko dauzkagun ezaugarri nagusiak aniztasuna, batasuna eta mobilizazioa, hiru horiek dira.



ANTONI ANSORREGI JUARISTI

2020-I-19

**“Zure irribarre eta samurtasuna
 BETIRAKO izango dira GURE ARTEAN”**

ETXEKOAK





LORE AZPIRI (behargina):

“Gazteok borrokara batzeko momentua dela uste dut”

- Zergatik erabaki duzu grebarekin bat egitea?

Azken aldian pentsiodunek egindako mugimenduak, Martxoaren 8aren ingurukoa eta beste hainbat ikusita, hauen inguruan gazteak non kokatzen garen pentsatzera garamatza. Eta, puntu horretara ailegatuta, gaur egungo sistemaren baitan gazteok bizitza-proiektu duin bat eraikitzeak aukerarik ez dugu. Grebarako deialdia lan, pentsio eta bizitza duinen alde denez, hori guztia batzen duela uste dut. Azken batean, bere garaian pentsiodunen mugimendua ere solidaritate batetik sortu zen, eskatzen dutena guri ere eragiten digun zerbait delako. Gauzak horrela, grebarekin bat egitea beharrezkoa ikusten dugu, besteak beste gizartea sortze horretan muga batzuk edo jartzeko.

- Zure moduko gazteei lan merkatuan sartzea tokatzen zaizue berez. Horre-

tarako ordua ailegatzen zaizuenen zerekin egiten duzue topo?

Lan merkatua gaur egun prekarizaziotik definitzen da. Gainera prekarizazio hori ez da lan merkatura mugatzen, bizitzaren beste esparruetara zabaltzen den zerbait dela esatea garrantzitsua dela uste dut. Ez duelako ahalbidetzen antolakuntza, aisialdia, militantzia... herrian parte-hartzea, azken batean. Prekarizazioak horiek guztiak zaildu egiten ditu. Egunotan aldarrikatzen ari den gutxieneko 1.200 euroko soldata, adibidez, eskaera iraultzailea dela dirudi, baina benetan ez da horrela, ezta gutxiago ere. Urte batzuk atzera begiratuz gero, hori eskatzea inolako erokeria ez dela argi ikus dezakegu. Baina errealitatea da gazteok ez dugula lan merkatuan horrelako baldintzarik topatzen, nire inguruan ikusten ditudanak prekarizazioaren ereduak dira: aldibarterakotasuna, ordu extrak, lanaldi partzialak, lanaldiaren %100era ailegatzen ez den

lana... Eta horiek guztiak ez dira gure borondatez, besterik eskaintzen ez digutela bako bako. Horrelako baldintzen aurrean aurkitzen gara. Gainera, daukagun gutxi hori galtzeko beldurrarekin, ez noa esatera protestatzen ez dugunik, baina horretarako aukerak murriztu egiten dira. Horregatik, urtarrilaren 30erako greba pixka bat hortik lotuta doala pentsatzen dugulako, erabaki dugu gazteok grebarekin bat egitea.

- Gaztea izateari emakumea izatea gehituz gero, egoera are okerragoa dela uste duzu?

Horrela da, bai. Era honetako greba orokorretan zaintza bera erdigunean jartzeko momentua izaten da. Bestela ere, argi dago neska izanda lehen aipatutako zailtasun guztiak bikoiztu egiten direla langile bezela eta emakume bezela bizitza uztartu ahal izateko.

- Pentsiodunen mugimenduak egiten dituen eskaeren artean, badago lan munduari zuzen-zuzenean lotutako bat: 2011. eta 2013. urteetako lan erreformak bertan behera lagatzea. Nola eragiten dizuete aipatutako erreforma horiek?

Ez naiz aditua, baina argi ikusten da erreforma horiekin lortu dituzten pribilegioak ez dituztela ezertarako ikutu nahi eta langileen eskubideak urratzen jarraitzen dute. Urtea hasi denetik hona prekarizazioak biktimak izan ditu, 8 langile hil dira eta.

- Zergatik pentsatzen duzu jendeak grebarekin bat egin beharko lukeela?

Uste dut gazteok asko daukagula esateko eta greba honetan sujeta aktibo izan gaitezke. Aldarri indartsuak ditugu, bai lurraldearen aitortzari begira, bai lehen aipatutako gutxieneko 1.200 euroko soldata, arazo garrantzitsua den etxebizitza eta emantzipazioa ere bai... uste dut ertz batean ez bada bestean izango dela, denok aurkituko dugula geure burua identifikatuta eta borrokara batzeko momentua dela.

AGUR, EUSEBITO!

*Besarkada handi bat
senide eta lagunei*



Eibarko Sortu





San Andres elizako ORGANOAREN zaharberritzea

Mendeurrena ospatzeko urte bi besterik ez zaizkio falta San Andres elizako organoari eta, gaur egun erabiltzen jarraitzen bada ere, berritze lanak behar ditu. Organoak bere egoera originala mantentzen du, baina denborak ez du barkatzen. Erabilerak eta hautsak kalte egin diote 98 urte hauetan, eta organoaren zaharberritzerako komisio bat osatu da organoak bere mendeurrena distiratsu ospatu dezan.

Xabier Zubizarreta San Andres elizako parrokoak, Jon Zarrabek, Josu Sarasuak, Eguzkiñe Larrañagak, Zuriñe Ibeasek, Juan Luis Agirrek eta Belen Sagarzazuk osatzen dute San Andres elizako organoaren zaharberritzerako komisioa. Organoak dituen beharrak aztertu eta egin beharreko lanak egiteko aurrekontuak eskatzen, obrak egin ahal izateko dirua biltzen, dirua jasotzeko kanpainak eta kontzertuak antolatzen eta antzeko lanak egiten dihardute. Herriko ondare garrantzitsua da San Andreseko organoa eta hura berritzeko lanak ez dira nolanhikoak izango.

Belen Sagarzazu organista da eta San Andres elizako organoak behar dituen hobekuntzen berri eman digu. *“Hauspoek ihesak dituzte eta, haizeak ihes egiten duenez, ez da intentsitatea mantentzen; larruzko mintz antzeko batzuk ditu eta oso gastatu-*

ta daude; pedalaren eta teklatuaren loturak hondatuta daude eta, ondorioz, nota batzuk tindatuta geratzen dira; oso afinazio sakona

ARGIA

Orila 28. Igandea. Donostia 1922
Euskaleriko berriak
Gipuzkoa

Eibar.- Salbatore egunean (25'ean) jo zan lenengo aldiz Elizeko organo berri edera eta jai aundia izan zan.

Emen izan zan jai onetan Braulio Arozena jauna lengo eretorea eta Agustin Enbil jauna etofi ba zan ederki, bera izan zan bada Elizako lan oei asiera eman ziena.

Afatsaldeko 3'etan Guridi ta Goñosari Bizkaiko organistarik onenetakoak gauza ederak jo zituzten, Sesé jaun tolosarak eta Laborda Gazteiz ko katedraleko abeslari bizkoak kantu zoragariak abestu zituzten jende guzia pozez utzirik. ¡Ayen eztañi eder, zoli ta gozoak!

Argiak San Andreseko organoaren inaugurazioari buruz idatzi zuen berria.

egin behar zaio; hodie demaseko hautsa dute eta horrek kalte handia egiten du; kontsolak sitsa dauka... Denboraren poderioz hondatzen joan diren gauzak dira”. Organoa konpontzeko lanak bereziak izan ohi dira eta espezialista gutxi dago. Beraz, diru asko behar da. *“Gainera, organo bakoitza bakarra da. Eibarko organoa San Andres elizarako apropos egina dago, bertan dagoen tokia- rentzat eta akustikarentzat”.*

Organoa zaharberritzeaz gain, parrokiako koroak abesten duen tokira heltzeko eskailerak konpondu behar dira. *“Kanpandorerraino doazen eskailerak dira, oso egoera kaskarrean daude eta arriskutsua da han ibiltzen den jendearentzat”.* Sagarzazuren berbetan. Beraz, eskaileren konponketa lanek sortuko duten hautsa kontuan hartuta, eskailerak konponduko dituzte lehenik eta, gero, organoa. Lan biak egiteko dagoen beharrak aurrekontuaren kopurua igo egin du eta 288.000 euro lortzea da komisioaren helburua.

Parrokiako Koruaren laguntza

Joan den abendura arte 35.289,37 euro batu ditu komisioak. Horretarako, Parrokiako

Koruak kontzertuak eskaintzen ditu hilean behin eta komisioak koruak egiten duen lana goraiatzeko du. "Kontzertua eskaintzen duten domeketan hor daude, foball partidua egon ala ez, eta asteen birritan entseatzeko dute. Nik organoa jotzen dut euren kontzertuetan, hile bakoitzeko lehen domekan". Sagarzazuk Arrate Larrañagak zuzentzen duen Parrokiako Koruak egiten duen lana azpimarratzen du, esker ona erakutsiz. 30 lagun inguru daude koruan eta "ahalegin handia" egiten dute organistaren iritziz. "Ikusten ez den lan handia dago guzti horren atzean".

Komisioak antolatutako ekintza eta kontzertuetan dirua jasotzeaz gain, norbanakoei donazioak egin dituzte (ES28 2095 5035 0310 60155008 kontuan egin daiteke) eta erakunde publikoen konpromisoa dute organoa berrizteko lanetan laguntzeko. "Eibarko Udalak babes osoa eskaini digu eta dagokion zatia ordainduko du", Sagarzazuren berbetan. "Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak komisio tekniko bat du eta eurek egin dute organoaren txosten teknikoa. Gainera, Udalak bezala diruz lagunduko digute". Foru Aldundiak behin betiko pausoa eman zain dago komisioa, obrekin hasi ahal izateko. "Hiru aurrekontu eskatu dizkigute eta guk prestatutakoak orain dela lau urte egin genituenek, berriak eskatu beharko ditugu". Baina horretarako, Foru Aldundiaren onespena behar dute lehenik.

Komisioaren asmoa 2022. urterako organoa zaharberritzea da, bere mendeurrenean kontzertuak antolatu eta organoa ezagutzera emateko gogoz. "Eibarren ez dugu ondare gehiegi eta zentzu horretan organoak balio handia du", Sagarzazuren iritziz. "Organoari dagokion kategorian eman nahi diogu".

Demaseko altxorra

'Melcher, Mar y Cia' organo-fabrikatzaileak sortu zuen San Andres elizako organoa



eta, Sagarzazuren berbetan, "Juan Melcherrek egindako organoetatik hobeen mantentzen den organoetako bat da". Urtean behin organista handiak etortzen dira San Andreseko organoa jotzera eta "harriztuta geratzen dira", Sagarzazuren berbetan. "Demaseko altxorra dugula esaten digute".


1922ko maiatzaren 25ean Jesus Guridi maisuak inauguratu zuen Eibarko altxor hau, 'Missa in honorem SS. Sindonis D.N.J.C.' joz. Bi teklatu, pedalea eta elektrizitate bitartez eragindako erregistro-sistema modernoa ditu. Ondoren, Isaias Hernando organistak 40 urtez jo zuen elizako organoa, 1957an hil zen arte.

Orain gutxi arte organoak elizaren liturgian erabili izan dira, baina gaur egun kontzertuetarako musika-tresna bezala erabiltzen dira baita ere. Hau da, erabilera kulturala du. "Musika-tresnen erregea esaten diote askok, hainbat orkestra-nstrumenturen soinua imitatzen dituzten erregistroak dituelako", Sagarzazuk dioenez. Tronpeta, klarinete, oboe, biola eta bibolin doinuak eskaintzen dituzte organoek, besteak beste, eta ezaugarri horiek kontuan izanda gero eta kontzertu gehiago eskaintzen dira organoekin.

Europako hainbat herrialdeetako joerari jarraituz, organoekin gauza handiak egiteko aukera dago Gipuzkoan. "Munduan metro karratuko organo gehien dituen tokia da Gipuzkoa", organistaren berbetan, "eta organo onak daude gainera". Donostiko Santa Maria elizan organo erromantikoaren ikastaroak egiten dira urtero eta munduko hainbat tokitako jendeak hartzen du parte. Santa Maria elizan bezala, Bergaran, Azkoitia eta Loiolan Cavaille-Coll fabrikatzailearen organoak dituzte, eta ikasleek bira egiten dute udan organo guztiak ezagutzeko. Eibarko organoa erromantikoa da baita ere.

Egide Kellerren historia

Juan Kellerrek ez daki organoa jotzen, baina bere familiak zeresan handia eman du organoen munduan. Bere aitona alemaniarra zen eta Egide Keller-Schmidt zuen izena. Melcherren fabrikaren egin zuen lan. "Ez dago inon jasota, baina gure ustea da San Andres elizako organoa muntatzen egon zela". Honen harira bitxikeria bat kontatu




Egide Keller, organogilea.

digu Juanek. "Sasoi hartako kontakizunek diote (1972an Eibar aldizkarian jaso bezala) organoa muntatzen egon ziren alemaniarrek elizan giltzapetuta geratu zirela behin, eta Badet tabernara bazkaltzera joan ezin zirenez, kanpaiak jotzen hasi zirela. Kanpaiak entzunda, 'Joshe Sakristakua' korrika joan omen zen atea zabaltzera".

Egide Keller Limburgen (Alemania) jaio zen eta bere aitak organo fabrika bat zuen. Belgikara joan ziren bizitzera eta emakume bat ezagutu zuen han, "nire amama", Juanen berbetan. I. Mundu Gerra hasi zenean Alemaniara joan zen gudan parte hartzeko, "prusiarren kaskoarekin", eta gerraostean Belgikara itzuli zen. "Organo fabrika bat zuen Belgikan, baina kendu egin zioten eta Bilbora erbesteratu zen". Melcherrekin beharrezan hasi zen eta sasoi hartan hasi zen San Andres elizako organoa muntatzen. "Dirudienek organo hura erakusketa batean zegoen eta San Andresen jartzeko moldata zuten", dio Juanek bitxikeria bezala.

Melcherrekin lan egin ondoren Elezgaray organo fabrikari hasi zen lanean Azpeitian. "Azpeitian bizi izan zenez euskera ikasi zuen gaztelera ikasi aurretik", dio Juanek. Gerra Zibila hasi zenean Keller familia Belgikara joan zen eta gerra amaitzean Bilbora itzuli ziren. Ordurako Melcher fabrika ez zen existitzen eta Juan Dourte organo fabrikatzailearekin hasi zen lanean.

Keller familiak Bilboko Zabalbide kalean zeukan etxean organo berruzko informazio ugari zuen Egidek (planoak, datuak...), baina etxea eraitsi zutenean hondakinen azpian geratu ziren guzti-guztiak. "Demaseko galera izan zen", Juanen berbetan.

*jesus gutierrez*

2050 oso urruti dagoela dirudi; ziur izan orduko gure bizitza-egoerak ez duela gaurkoarekin antz handirik izango, eta askoz gutxiago 1990ean genuenarekin

1990-2020-2050

Izenburuko zifren artean lotura logikorik ez bada nabaritzen ere, badago, bai. Badira egun batzuk, urte berria hasten zela-eta, filosofo ingeles bati egindako elkarrizketa entzun nuela, denbora eta historiaren joan-etorriaz hausnarketa bitxia eginez. Zioen 1990tik 2020raino pasatutako denbora beste zegoela gaur egunetik 2050eraino, justu XXI. mendeko erdira arte, hain zuzen.

35 urtetik gorako gehienok ondo gogoratuko dugu zer egiten genuen 1990ean, non lan egiten edo ikasten genuen, nortzuk ziren gure lagunak, joaten ginen tabernak, urte haietako oporrak, gure gertukoaren artean hil zirenak... Ematen du ez dela hainbeste denbora pasa, baina ziur 2020ko gure bizitzak alde handiak dituela 1990ko ordukoarekin, nahiz eta batzuetan atzo izan zela uste du-

gun. Gertatutakoaren hausnarketa ezkorra eta etsigarria egin dezakegu; baina horrela da, gustatu ala ez. Bizitzak aurrera jarraitzen du eta gu urteak zelan pasatzen diren begira (eta horrela jarraitu dezagun!).

Aldiz, 2050 oso urruti dagoela dirudi. Ziur izan orduko gure bizitza-egoerak ez duela gaurkoarekin antz handirik izango, eta askoz gutxiago 1990ean genuenarekin. Baina urte kopuru berbera dago bi kasuen artean. Aldatzen garenek eta gure bizitzako historia egiten dugunok gu geu gara. Gu eta gure zirkunstantziek egiten gaituzte (gurasoak, seme-alabak, lanak, lagunak, zaletasunak...). Gure bizitzak ez daude izarretan idatziak, guk geuk idazten ditugu, eta baita gure bizitzen historiak eraiki ere gure erabakiekin.

*iñaki elortza*

Orain pelikulako “gaiztoa” karbohidratoa denez, dieta honetan hori murriztea eta, aldiz, etorkizuneko elikaduran koipe askoz gehiago jatea aholkatzen da

Keto dieta: zer ote da?

Gabonak pasa ondoren zure asmoetako bat argaltzea baldin bada eta, horri buruz googleatu baduzu, ziur keto dieta edo dieta zetogenikoari buruz irakurri duzula dagoeneko. Zer da? Ohituta gaudenarekin alderatuz elikatzeko era guztiz desberdina da. Eta dirudienez dieta hau geratzeko etorri da, ez da moda bat eta oinarri zientifikoa du. Saia gaitezen dieta hau zertan datzan azaltzen.

Dieta honen oinarria karbohidratoen (ogia, arroza, pasta, azukrea, fruta, etab.) murrizketa zorrotza da, eta hauen ordez normalean baino koipe askoz ere gehiago jatea. Bai! Koipea! Denok dugu barneratua binomio hau: koipea=txarra, baina ebidentzia zientifikoak honen kontrakoa esaten du gaur egun, gure etsaia aldatu delarik. Orain pelikulako “gaiztoa” beste bat da; karbohidratoa. Proteinaren inguruan, dieta honetan kopuru normala jaten dela esan behar da, beraz, ez da dieta hiperproteiko bat.

Eta zer lortu dezakegu elikatzeko mota honekin? Ba abantailak asko izan daitezke:

- Pisia galtzea, nola ez
- Koipea galtzea eta muskulua mantentzea
- Kontzentrazioa hobetzea
- Odoleko azukrea jaistea
- Gorputza desinflamatzeko
- Aldartea hobetzea
- Gaixotasun autoinmuneen hobetzea
- Hormonen orekan hobekuntza
- Zahartzearen aurkako eragina
- ...

Dieta edo elikatzeko era honen aurkakoak ere ugariak dira, baita zientzialarien artean ere. Baina dirudienez, dieta honen aldekoak gailenduko dira azkenean. Etorkizuneko elikadura hau izan daiteke? Hori denborak esango du, baina nik ez nuke aukera hori baztertuko. Adi egon beharko dugu. Zaindu!

gazteON



Pil-pilean dugun gaia da aldaketa klimatikoarena. Adituek diotenez, terminoa, klima-aldaketa, ez da guztiz egokia; izan ere, klima-aldaketa berez gertatzen denari esaten zaio, eta, une honetan, kezkarria dena gizakiaren ohitura txarren eraginez jasaten ari garen aldaketa da. Horregatik, egungo egoeraren larriari erreferentzia eginez, zuzenagoa litzateke klima-krisiari buruz hitz egitea, klimaren arazoa globala baita.

Aldaketa klimatikoa edo klima-aldaketa. Batera zein bestera bi hitz. Milaka ondorio. Errudun bakarra?

Klima-aldaketa

Egilea: Malen Illarramendi Beitia

Zer diote mahai-inguruko kideek?



“Gaur egungo erabakiek guztiz baldintzatuko dituzte hurrengo hamarkadak. Aurrean daukaguna ez da batere polita, baina mezu positiboa ere bota behar dugu; oraindik hori ekidin dezakegu”

**Zientzia Geologikoetan
Doktorea eta BC3-ko ikerlaria.**

Elisa Sainz de Murieta



“Aukeraketa bat egiterako orduan, kontuan izan beharko genuke zerk izan dezakeen inpaktu gutxien, eta horren arabera aukeraketa egin”

**Energia Berriztagarrien
Ingeniaritzan lizentziatua.**

Markel Retolaza



“Klima-aldaketari aurre egiteko norbanakoaren aportazio horrek esfortzu bat eskatzen du, eta jendeak oso erraz jotzen du erosotasunera. Politikariek badakite berezko dugun instinto hori nolakoa den, eta horrekin jolasten dute”

**Biologian lizentziatua eta
nekazaritza ekologikoan
aditua.**

Enrike Sosola



“Interes ekonomikoek bultzatuta, badago klima-aldaketa auzitan jartzen duenik. Erreferente mundialak haien merkatuari soilik on egiten dioten sistema ezartzen dute. Beraz, jendeak preferentzia klimatikoa duen politika bozkatu beharko luke.”

**Eibarko institutuko
DBH 4. mailako ikaslea
Oier Garcia**

Beroketa globala, muturreko baldintza meteorologikoak, urtzaldiak eta poloetako geruzen murrizketa, itsas mailan gertatutako aldaketak, faunak eta florak jasandako eragina... la eguneroko hizketagai bihurtu zaizkigu, baina, benetan gara jakitun zertaz ari garen? Kontziente gara horiei mugak jartzea gure esku dagoela?

Gizartearen kontzientzia

Gauza jakina da gaur egungo gizartean indibidualismoa dela nagusi, alegia, erdigunea norbera

da, eta zerbaitek zuzenean eragin ezean, ez dugu gure aldetik asko jartzen, geure unibertsoetik aldentzen baita. Jarrera horrek gure bizitzako alor guztietan du eragina, eta, zalantzarik gabe, klima-aldaketaren kontuan ere bai. Horren aurrean, egoera hobetuko bada, “Ni naiz, baina gu ere bagara”, kolektibotasun hori bultzatu beharko litzateke; hori egin ezean, klimaren arazoak, beste askok bezala, ez baitauka konponbide errezik.

Egia da, hala ere, gero eta kontzientzia handiago dugula; izan

ere, orain dela hamar bat urte, esaterako, gutxi batzuen kezka baino ez zena gaur egun asko hedatu da, eta arazoa denoi dabilkigu buruan, neurri handiagoan ala txikiagoan, baina ez da nahikoa. Zaila da lotura egitea gure egunerokotasunean, ez baikara arduradun zuzen sentitzen, eta hortxe dago koxka. Asko dugu egiteko, baina gauza txikiak aldatuta eta ohitura berriak hartuta, asko lor daiteke. Nahiko uste orokorra da, inpaktoa hain handia izanda, norberak ezin duela askorik egin, baina zabaldu beharreko me-

zua bestelakoa da: denon artean, ekintza txikien bitartez, inpaktoa gutxitzea gure esku dago.

Enpatia kontua ere izan daiteke kontzientzia falta horren atzean ezkututzen dena. Badirudi urrun dagoenak enpatia gutxiago eragiten digula, eta klima aldaketarekin lotutako arazoak momentuz urruti ikusten ditugu. Hartz zuria, icebergak, suteak eta antzerako kontuak aipatu ohi dira klimaren auziaz ari denean, eta horiek entzunda, zaila egiten zaigu arazoa gurean irudikatzea, beraz, eragitea ere ia ezinezko ikusten dugu. Era berean, hemen bizi garenok ingurumenaren gaineko eragina etorkizuneko kontu gisa ikusten dugu, eta zenbat eta denbora-lerroan urrunago, orduan eta gehiago kostatzen zaigu aktibatzea.

Eredu jasangarria sortu

Ez dugu ahaztu behar, halaere, klima-aldaketari aurre egiteko neurriak hartzen ditugunean, horrek

eragin positiboa edukiko duela beste hainbat arlotan, beraz, arazo transbertsala dela esan dezakegu, ekonomian, bioaniztasunean, osasunean... eragiten baitu.

Cop25

Hori horrela, eta arazoaren larritasunaz ohartuta, goi-bilerak antolatzen dira, mundu-mailako neurriak har daitezten. Azkena COP25 izenekoa dugu, non mundu osoko eskualdeetako gobernuek klimaren arazoari aurre egiteko 2025era begirako konpromisoak zehaztu dituzten. Horiek guztiak ezinbestekoak diren arren, gertuagotik ere hasi beharko genuke neurriak hartzen, udalek ere zeregin handia baitute horretan, bestela esanda, politika publikoen rola funtsezkoa baita.

Klima-aldaketa zalantzan


Interes politikoak tarteko, bada klima-aldaketaren auzia zalantzan jartzen duenik ere, baina zientzia-

larien artean adostasun osoa dago, eta haientzat klima-krisia errealitate gisa baino ezin da ulertu. Zalantzarik gabe, oraindik badago zer eginik: eredu jasangarria sortzea eta jasango ditugun inpaktoen eragina txikitzea gure esku dago, ez da saihestezinako arazoa, inolaz ere, baina martxan jarri beharra dugu.

Hartu beharreko neurriak

Horretarako, besteak beste, hauek dira aintzat hartu beharreko jarrerak: energia aurreztu, ahal den neurrian berriztagarria erabili, uraren eta argindarraren kontsumo arduratsua egin, modu iraunkorrean sortutako gertuko produktuak kontsumitu, garraioaren erabilera erabat aldatu... Inplikazioa denon aldetikoa izan behar da: norbana-koek, enpresek eta erakundeek kontzientzia hartu eta bidea elkarrekin egin.

Ekin diezaioگون berandu baino lehen!



Zein ondorio atera dira?

Erronka globala da, denok daukagu zer eginik

Klimaren aldagai hau gure eguneroko erabaki guztietan txertatu beharko genuke. Esku guztiak behar ditugu: gizarte zibila, herritarrak, instituzioak, enpresak... Hau erronka globala da, eta denok daukagu zer eginik, denon esku dago.

Elisa Sainz de Murieta

Herritarron aldetik antolaketa txiki bat behar da,

gure ideiak argitara ateratzeko. Gazteak gara kontzientzia handiena daukagunok, baina oraindik ez daukagunez ez hitzik ez botorik politikariek ez dute haien norabidea aldatzen. Horregatik batu behar gara, herri modura edota lurralde modura.

Oier Garcia

Gazteen artean badago gai honekiko kontzientzia

Ikusten dut jende gaztea oso kontzientziatuta dagoela klima-aldaketaren kontuarekin. Greta Thunberg daukagu mundu-mailan gazte ezagunena, baina ikusten dut gaur egungo gazteek ere lanean dihardutela.

Markel Retolaza

Eibar aurrerakoia izan da beti, baina gai honetan atzeratuta geratu gara

Eibarren bada erronka handia: beti izan gara aurrerakoiak eta ekintzaileak eta puntu honetan atzeratuta geratu gara. Tradizioari eutsi beharko lioke Eibarrek eta talde ekologikoak sortu.

Enrike Sosola



Spotify



iVoox

Podcast-a entzun nahi?

Sartu zaitez **etakitto.eus** web orrian, eta bertan aurkituko duzu mahai-inguru honen grabazioa.



Klima-aldaketa

Mahai-inguru honen **podcast** edo audio-grabazioa **Spotify** eta **iVoox**en entzun eta deskargatu daiteke. Plataforma horietan gazteON izenarekin aurkituko gaituzu. Oso modu errazean!

Podcast-a ingelesetik datorren hitza da (IPOD eta BROADCAST). Mugikor eta ordenagailuetatik entzun daitekeen multimedia fitxategi honek indar handia hartu du azken bolada honetan. Hori ikusita, gazteoneko atala ezin da atzean geratu, eta grabazio hauekin martxan jarri da.

Olabeko zelaiaik Bolunbururen edizio berria hartuko du etzi

Bolunburu Memoriala atletismo proba domekan 69. ediziora helduko da eta zaltetuek aukera bikaina izango dute Arrateko Olabe zelaian goiz zoragarria bizitzeko. Gainera, probintziako atleta onenak izango dira proban, aurten Gipuzkoako Koparen (Laboral Kutxa Saria) azkeneko proba izango delako eta bertan erabakiko delako zeintzuk jantziko dituzten txapelak. Eibarko Klub Deportiboak eta Eibarko Kirol Patronatoak antolatutako goiz atletikoan bederatzi lasterketa izango dira guztira, hiru ordutik gora iraungo duen egitarauarekin.

Jardunaldia goizeko 10:30ean hasiko da, 20 urtetik beherako emakumezkoekin eta 16 urtetik beherako eta master mailako (beteranoak) gizonezkoekin, 4.200 kilometroko distantzian. Handik ordu erdira, 11:00etan, emakumezkoen lasterketa jokatuko da, 16 eta 18 urtetik beherako eta master mailako parte-hartzearekin, 3.400 metroko ibilbidea osatzeko. 11:20ean, 6.200 metroko distantzian, absolutu eta 23 urtetik azpiko emakumezkoen lasterketa jokatuko da, 18 eta 20 urtetik beherako gizonezkoekin batera egingo den proban. Handik ordu erdira, 11:50ean, gizonezkoen proba izango da, absolutu eta



23 urtetik azpikoekin, ia 10 kilometroko ibilbidea osatzeko (9.900 metro). Aipatutako lau proba horiek amaituta, gazteenentzako antolatutako beste bosten ordua izango da: 12:35ean infantil mailako neska irtengo dira, bi kilometro egiteko, eta 12:45ean infantil mailako mutilak, 2.400 metro osatzen. 13:00etan neska alebiren ordua helduko da eta 13:15ean mutilena, kasu bietan 1.600 metro egiteko. Azkenik, 13:30ean Eibarko benjaminen proba (2008an eta 2009an jaiotakoak) hasiko da, 600 metroko ibilbidea osatzeko.

Eibar Igerixan laugarren izan zen Gipuzkoako Klub Kopan

Eibarko igeriketa taldeak laugarren postua lortu zuen klub mailan Irungo Azken Portu kiroldegian jokatutako Gipuzkoako Klub Koparen barruan. Guztira, 11 emakumezko eta bederatzi gizonezko hartu zuten parte eta lehia bizian jardun zuten, aurre-

neko postuen bila. Maite Barruetabek 200 librea eta 400 estiloetan irabazi zuen eta nesken taldea laugarren sailkatu zen, 431 punturekin; mutilen taldea, bestalde, zazpigarren izan zen, 286 punturekin.

Aurreko zapatuan, bestalde, alebiren mailako Ligaren laugarren jardunaldia jokatu zen Azkoitian eta benjaminen mailako bigarrena Legazpin. Alebinek 200 estiloetan eta 100 bizkarrean egin zuten igeri; Eibar Igerixanek hamar ordezkari izan zituen bertan eta taldeko Iker Calvo garaile izan zen bi probatan. Benjaminek 50, 100 eta 200 bizkarrean jardun zuten eta baita 50 bularrean ere; hor bederatzi izan ziren eibartarrak eta Paula Calvok 200 bizkarrekoa bereganatu zuen.



Azkoitian parte hartu zuen alebiren taldea.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Celta - EIBAR (etzi, 14:00)

Emakumezkoen 2. Maila

SE AEM - EIBAR (etzi, 12:00)

3. Maila

VITORIA - Real Sociedad C (etzi, 17:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

Oiartzun - EIBAR B (etzi, 16:00)

Ohorezko Erregional Maila

Euskalduna - EIBAR URKO (bihar, 16:15)

1. Erregionala

URKI - Mutriku (etzi, 12:30)

Ikasberri - EIBARTARRAK (etzi, 15:30)

Emakumezkoen Gorengo Maila

EIBAR (atsedena)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Osasuna - EIBAR (bihar, 16:30)

Euskal Liga

EIBAR B - Galdakao (bihar, 18:00)

KADETEAK

Euskal Liga

EIBAR - Leioa (bihar, 15:45)

FOBALL-ZALETUA

Ipur Sagardotegia - La Jara (bihar, 09:00)

Bar Txoko - Illunpe Areto (bihar, 09:00)

Azkena Adahi - Slow XOK (bihar, 10:30)

Los Paisanos - Feredu (bihar, 12:00)

Garajes Garcia - Chic (etzi, 09:00)

Durango - JMR Erreformak (etzi, 10:30)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

SOMOS - Barakaldo (bihar, 18:30)

Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Maila

MECALBE - Urnieta Quel (bihar, 16:30)

Gipuzkoako 1. Maila

EIBAR - Donibane (etzi, 11:45)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Campus Ourense - AVIA (etzi, 12:00)

Emakumezkoen Euskal Liga

AVIA - XV Hortaleza (etzi, 12:00)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 3. Maila

AVIA - Astigarrako Mundarro (bihar, 18:15)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

WP Donostia - URBAT (bihar, 13:15)

Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Leioa WLB - URBAT (bihar, 10:45)

AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN

Celta-Eibar etzi 14:00etan

Azken postuetatik ihes egiteko borrokan, garrantzi handiko norgehiagoka jokatuko dute Mendilibarren mutilek domekan Vigon. Partidua 14:00etan hasiko da eta GOL-ek zuzenean eskainiko du. Aurreko zapatu gauean Atletico de Madrid handiari Ipuruan 2-0 irabazi ondoren, eibartarrek sei puntuko alde dute jaitsierarekin, justu Celtak markatzen duen marrarekin, eta alde horri gutxienez eustea oso ona izango zen, jakinda gainera Ipuruan Eibarrek irabazi zuela.

Eibar FT-ko ordezkariak gorengo postuetan ia maila guztietan

2. Mailan jokatzen duen emakumezkoen talde nagusiak 1. Mailara igotzeko itxaropenarekin jarraitzen du Unben Parquesoli 1-0 irabazi eta gero; une honetan hirugarren da sailkapenean, baina aurretik dituen Bartzelona eta Athletic-eko bigarren taldeek ezin dutenez igo, liderra balitz moduan dago. 3. Mailako Vitoria filiala gero eta sendoago dago lehenengo postuaren bila (bigarren da), iaz galdutako 2. B maila berreskuratzeko borrokan; hori bai, postu horri eutsita ere, horrek ez lioke igoera

promozioa jokatu beharra saihestuko. Horren zain dago, jakina, Erregional Ohorezko mailako Eibar Urko, hau ere gero eta sendoago lidergoan (azken denboraldian ere, nahiz eta txapeldun izan, ezin izan zuen igo Vitoria jaitsi zelako). Euskal Ligan jokatzen duen emakumezkoen bigarren taldea bigarren da sailkapenean, Elorriari irabazi ondoren. Harrobiari begiratuta, jubeniletako Ohorezko Maila Nazionalean jokatzen duen lehen taldea bigarren da eta maila bereko Euskal Ligan jokatzen duena



Vitoriak gora egin du azken aldian eta bigarren dugu sailkapenean.

bosgarren: goi mailan dihardute jokatzen talde biek, azken urteotako emaitza onenek lagunduta. Kadete mailan, gauza bera: Euskal Ligako taldea hirugarren da sailkapenean eta Ohorezko Mailan jokatzen

duen neskena liderra Zarautzi 2-0 irabazi eta gero. Infantiletan, azkenik, gauza bera esan behar dugu: Ohorezko Mailako taldea liderra da eta infantil txikietan jokatzen duena bigarren dago sailkapenean.

Urbateko waterpolistek pronostikoak birrindu dituzte berriro



Urbatek azken urteotako bideari jarraitzen dio eta, taldeak guztiz berriztuta ere, senior mailako bi ordezkariak Euskal Herriko Koparen laugarren finalera iritsi dira. Bihar Donostiako Paco Yoldi igerilekuan jokatuko den saio horretan izango dira gizonezkoen (laugarren urtean jarraian) eta emakumeen (hirugarrenez jarraian) taldeak, iaz irabazitako txapela berresteko gogoz: *"Taldea bakarra gara horrelakoak erdiesten"*, dio Davide Cerchi presta-

tzaileak. Txartela aurreko asteburuan lortu zuten Orbea igerilekuan jokatutako partiduetan. Eibarko nesken taldea WP 9802 baino gehiago izan zen (12-5 garaipen argiarekin, atezainen lanari esker batez ere), baina mutilenak asko borrokatu behar izan zuen markagailuak euren alde egiteko. Claret Askartza hiru gol aurretik ere joan zen, baina eibartarrek lehenengo berdindu eta azkenean penaltietan aurkaria gainditzea lortu zuten (14-13).

Bar Txoko lider berria foball-zaletuko liga torneoan

Azken jardunaldian sailkapeneko bi lehenen artean jokatutako partidua aldaketa ekarri du lidergoan. Ordura arte bigarren zegoen Bar Txokok 2-1 irabazi zion Garajes Garcia, eta Markel eta Egañaren golei esker lider jarri da, Garajes Garcia bi puntura lagata. Liga txapelketa euren arteko kontua da bigarren itzuliko bi jardunaldi jokatu direnean. Ipur Sagardotegia hirugarren sailkatua Bar Txoko liderrarengandik bederatzita puntura dago eta borroka nagusia Ipurri jarraitzen dion laukotearen artean dago: Durango (24), Azkena Adahi eta La Jara (23) eta Feredu Buenos Aires (22) bi puntuko tartean daude. Txoko lider berriak erakusten ditu, puntu gehien izatearekin batera, kopuru bikainenak: talde goleatzaileena da, 60 golekin, eta gol gutxien jaso duena, 6rekin. Goleatzaileen arloan ere Txokoko Markel (15 gol) eta Mikel (12) dira liderrak; euren atzetik daude Garajes Garcia Aparicio eta Landa (9 gol bakoitzak) eta Azkena Adahiko Haritz eta Kepa (hauek ere 9na golekin).



Zazpi garaipenekin amaitu du denboraldia Aitor Hernandezek

Specialized-Ermua Innpulsoko txirrindulariak zazpi garaipen lortu ditu azken denboraldian, Txirrindularitzako Euskal Federazioko Challenge eta Gabiriako Kopa bereganatzeaz gain. Garaipen horietako bost azaroan eskuratu zituen ermuarrak (Legazpi, Colindres, Berriz, Arbulu eta Alalpardo) eta beste biak abenduan (Oñati eta Iruñea). Azken denboraldiko garaipenekin, Aitor Hernandez 119ra iritsi da bere orain arteko ibilbidean, *"datorren denboraldian jarraitzeko"* asmoa baitu.

Tekniker Eibar Eskubaloiko kadeteak Gipuzkoako txapeldun

Urnietako Oianume Jatetxeari 23-32 irabazita, kadete mailako mutilen Eibar-ko ordezkariak Gipuzkoako txapela jantzi zuten. Maila berekoen azken jardunaldia borobiltzeko, Eibarko beste hiru taldeek ere garaile irten zuten: Komatek aparteko neurketa egin zuten eta lehia estuan Fico-ba Bidasoa Irubi 27-26 irabazi zion eta, nesketan, Mecalbe ondo nagusitu zen Orion Sinergiari 22-31 gailenduta eta Muelles Zaldia Leizaran Horia baino gehiago izan zen (27-16). Seniorretan, Somos talde nagusiak Huescan erraz galdu bazuen ere, beste bi taldeak irabazle ate-



ra ziren euren neurketetan. 1. Maila Nazionaleko taldea baja askorekin joan zen

Avefor Huescari aurre egitera eta porrot argiarekin (36-25) bueltatu zen. Probintziako 1. Mailan jokatzeko duen senior mailako beste bi taldeek ondo irabazi zizuten euren partiduak Ipuruan: emakumezkoen Grupo Mecalbe Egari 24-17 gailendu zitzaion eta gizonezkoen Eibar Eskubaloia garaipenaren bidera itzuli zen Ordizia Siglo XX-ri 28-24 irabazita. Jubeniletan, mutilen taldeak indartsu jarraitzen du lidergoan eta oraingoan Tolosan irabazi zuten (19-23), emakumezkoen Mecalbek Trapaia Pulporekin 25-20 Zumaian galtzen zuten bitartean.

Emakumezkoen Avia Eibar Rugby taldeak indartsu hasi zuen liga

Denboraldi honetan jokatzeko duen bigarren torneoan, Oho-rezko B Mailan, garaipen ezin argiagoa lortu zuten eibartarrek Murtzian (0-96) eta domeka honetan, eguerdiko 12:00etan, Unben izango dute bigarren jardunaldiko norgehiagoka. Aurkaria XV Hortalezaz izango da, lehenengo jardunaldian bere etxean eibartarrek ondo ezagutzen duten Valentiako Les Abelles taldearekin galtzaila izan zen taldea. Gizonezkoen taldeari, bestalde, gauzak gero eta okerrago ari zaizkio ipintzen Oho-rezko B Mailako ligan. Aurreko asteburuan Unben Universitario Bilbaorekin galdu eta gero, eibartarrek azken aurrekoak dira sailkapenean. Domekan neurketa zaila izango dute Ourensen, bertako Campusen zelaietan, 12:00etan hasiko den partiduan; galziarrak hirugarren dira sailkapenean.

Avia Eibarko Txirrindulari Elkartearen proiektuen babesle

Eibarko Txirrindulari Elkartek Avia energía banatzaile enpresarekin streamina babesteko akordioa sinatu du, internet bidezko telebista emanaldien ekoizte bideratzeko. Horrela, Valenciaga Memorialeko (elite eta 23tik azpiko Espainiako Kopa) eta Eibar Hiria Sari Nagusiko (emakumezkoentzako UCI 1.2 proba) ekoizpenek kailate handiagoa izango dute, baliabide tekniko eta personal gehiagorekin, eta 5x3 metroko pantaila erraldoia jarriko da helmugan.



Aitor Egurrola AVIA enpresako zuzendari nagusia eta Angel Lopez Eibarko Txirrindulari elkarteko presidentea.



Avia Eibar Saskibaloiak amaieran garaitu zuen Elorri Aldapa

Azken sailkatuaren bisita ez zen erraza izan eibartarrentzat, Avia Eibar Saskibaloiak partidu amaierara arte ezin izan baitzuen Alegiako Elorri Aldapa atzean laga. Azkeneko 12 puntuko aldearekin nagusitu ziren eibartarrek. Eraitza horrekin Avia bosgarren dago sailkapenean, hirugarrenarekin berdinduta, bost garai-pen eta hiru porrotekin.

Kalamuako Jon Alberdik brontzea lortu zuen Madril

Aurreko asteburuan Madrilgo Villaviciosa de Odonen jokatuak kadete mailako jiu-jitsu II. Espainiako Kopan Jon Alberdi eibartarrek brontzezko domina irabazi zuen. Maila onean jardun zuen Kalamuako judokak berarentzat denboraldiko lehen lehiaketa garrantzitsuan, finalerdietara heltzea lortuz.



Hilaren 29an 28 urte beteko ditu triatloian Eibarren dugun ordezkari handienak. Hainbat txapel lortu ditu azken zortzi urteotan eta, garaipenetik kanpo, baita postu bikainak eskuratu ere. Orain dela aste batzuk zortzigarren egin zuen Txinako Harbin herrian jokaturako Neguko Triatloiko Munduko Kopan. Proban berez esperientzia aparta bizi izan bazuen Pellok, ez zen txikiagoa izan bidaia egiterakoan egokitu zitzaiona. Hala ere, *“momentuko une txarrak ahaztuta, sentsazio onenekin bueltatu”* zen eibartarra. Bide beretik jarraitzeko asmoa du.

- Noiztik diharduzu triatloian? Badakigu aurretik ere kirola egitea gustoko izan duzula.


Txikitatik ibili gara mundu horretan. Atletismoa eta eskia betidanik praktikatu izan ditut eta ez zaizkit modalitate arrotzak egiten. Gaur egun, fondoko eskian badihardut ere, pistako atletismoa guztiz alboratu dut; arineketari, bai, horri eusten diot. Esan daiteke aipaturako kirol horietan izandako lesioek bideratu nindutela triatloia egitera: belaunetatik asko sufritu izan dut, igeri egiteak min horiei aurre egiten lagundu dit, eta bizikleta bera ere ez da hain kirol agresiboa... Beraz, errebote efektuz hasi nintzen triatloian. Gainera, Txomin nire anaiak ere horretara bideratu ninduen, bera duatloian hasita zegoelako. Triatloian, egia esateko, zazpi-zortzi bat urte eman-go nituen dagoeneko.

- Modalitateko hainbeste kirolen artean, non dago zure puntu indartsuena? Kontrara, non moldatzen zara “baldarren”?

Gaur egun esan dezaket bizikleta dela nire alde indartsuena; txarrena, jakina, igerian egitea. Azken horretan urteetako atzerapena daramat gainean. Elurretan ere asko ibilitakoa naiz, fondoko eskian prezeski ez bada izan ere.

- Triatloian jardundako urte guzti horietan badituzu hainbat garaipen eta postu bikainak. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke, labur esateko eskatuta?

2018an eta 2019an lortutako neguko triatloiko Espainiako txapelak izan daitezke horietako bi. Brontzeko dominak eskuratu ditut baita distantzia luzeko eta erdiko Espainiako txapelketetan ere. Izen handiko probetan lortutako postuei begi-



ra, Iruñean eta Zarautzen bigarren izatea aipatuko nituzke. Jakina, Txinako hau ere ez nuke ahaztu nahi, munduko onenekin zortzigarren geratzeak baduelako nahiko merito. Eta baita sufrimendua ere: proba gogorra izan zelako, alde batetik, eta bidaia bera ez zelako samurragoa izan, bestetik.

- Txinako Harbin herriko probari helduz, zelan sortu zitzaizun bertan parte hartzeko aukera? Hemendik irten aurretik ere, erraztasun gutxi, ezta?

Ez zen txartel asko banatzeko, ez. Espainiako txapeldunoi egokituko zitzaigun aukera eta, gonbidapena azaro amaieran jasota, bi egunetan erabaki behar izan genuen onartu edo ez. Nirekin batera emakumezkoen txapeldunak, Enara Oronoz nafarrak, izan zuen aukera hori. Baietz esan genuen, baina bidaia guztia geure gain erori zen, guk antolatutako behar izan genuen guztia, eta Txinan sartzeko bisak ere atzeratu egin ziren. Premier Bidaia-ekoek lagundu zidaten; baina, hala eta guztiz ere, prozesuari hiru-lau aldiz heldu behar izan genion. Gabonak ere bai, tartean. Bizikleta eta eskiak nire kontu, guztia bakarrik egin behar izatea... Nahiko lan Pekinera iristeko, eta baita bertatik mugitzeko

ere. Azken batean, horrelakoek asko irakasten dizute eta hurrengo baterako mesedegarri izango zait.

- Hala ere, bertan emandako mailarekin pozteko moduan zaude, ezta?

Oso pozik geratu nintzen egindako probekin: antxitxiketan, bizikleta gainean, eskiekin... Ondo jardun nuen. Ez zen erraza izan, argi dago, baina neurrian eutsi nion. Badituz, jakina, gauzak hobetzeko; esaterako, trantsizioetan-eta denbora asko galdu nuen. Hurrengo batean hobeto prestatu beharko gara, atzamarretan-eta oraindik azala galtzen nabil... Hala ere, denborarekin, bizi izandako une txarrak ahaztu egiten dituzu, eta une onenekin geratzen zara. Hori bai, Bilbora heldu nintzenean ez nitzun gauza bera esango.

- Zeintzuk izango dira zure hurrengoko erronkak, epe motzera begira?

Otsailaren 2an Espainiako txapelketa dugu, Anson; 8an Mundukoa, Italian; eta hilaren amaieran, 29an, Europakoa, Errumanian. Egutegiak hori dio, baina ikusi behar elurrak laguntzen digun: esaterako, Euskadikoa domeka honetarako zegoen iragarrita, 26rako, baina dagoeneko abisua pasatu digute orain behintzat ez dela jokatuko, elurra faltagatik.



- Aukeratzeko egoeran, zer nahiago: uda ala negua?

Negua, zalantza barik. Hotzarekin hobeto moldatzen naiz; beti ere hemengo hotzarekin, ez Txinakoarekin. Modalitateei begira ere, eskiatzen erosoago nago igerian egiten baino.

- Zeintzuk izan dira jokatu dituzun probarik gogorrenak?

Egin ditudan IronMan distantziako bi triatloiak aipatuko nituzke hor; batez ere, bizikletan desnibel handiak gainditu behar izan genituelako. Txinakoa ere sartuko nuke, hotzarengatik; eta baita Salamancako bat ere, hor justu kontrakoarengatik, egin zigun beroarengatik.

- Eta zeintzuk dituzu gogokoan, gustokoan amaitu zenituenak?

Alpe d'Huezeko triatloiarekin oso konforme geratu nintzen. Hemen, etxetik gertu, Zarautzekoa esango nizuke: badu zeozer berezia egiten duena.

- Triatloia praktikatzeko hainbat etxetako laguntza ere izan duzu, ezta? Kirol garestia da?


Bai, dirua behar duzu horretan jarraitzeko. Probetan izena ematea ez da mer-

kea izaten eta, horrez gain, materialak ere badu bere kostoa. Nire kasuan, Orbea eta Orca dira materialarekin laguntzen didatenak: bizikleta, erropa, neoprenoa... Gero Eibar Fundazioak ere inguruko hainbat kirolariri laguntzen digu, batez ere pestakuntza mailan: fisioterapia, nutrizioa, sendagileak... Hierros Servandok ere badira urte batzuk laguntzen didala. Eta, otsailaren 8ko Mundialari begira, Guridi tabernak ere lagunduko dit bada horretan.

- Denboraldi honetan, hala ere, independente moduan parte hartzea erabaki duzu...

Bai. Orain arte atletismoko probetan Deportiboarekin eta triatloian Eibarko Triatloi Taldearekin, azken urteotan Deltecorekin, hartu izan dut parte. Eskaintza mordoa jaso dudan arren, herriko taldean hobeto nengoelako. Baina, nire egutegia hain arraroa denez, oraingoan pentsatu dut independente moduan parte hartzea. Lizentzia egiterakoan urte osorako da, eta horrela askeago sentitzen naiz: gero sartzeko aukera ere badut horrela.

- Hori bai, entrenatu egunero, ezta?



Jakina, goiz eta arratsalde gainera. Txomin nire anaiarekin gehienetan, antzerako egutegia dugulako. Igerian ere biok kaxkar samarrak garenez...

- Hemen nahiko arazo izaten dugu elurrarekin, ezta? Elur askorik ere ez, probak bertan behera... Noiz amaituko duzu neguko triatloia sasoia?

Martxoaren erdialderantz gutxi gorabehera: estatuan otsailaren amaierarako akabo, baina Frantzia parte hartzen dut pare bat probatan. Elurrarena... nik esango nuke ez dakigula kudeatzen, berehala saturatzen gara... urtean elur-egunak seitek ez garenean pasatzen. Elurra lantzen jakin izan beharko genuke. Txinan ondo ikusi nuen hori.

- Hala ere, paper ona egin zenuen han.

Munduko txapelketaren proba izanda, ranking-ean goian daudenak izan ziren han eta, bai, nahiko gertu izan nituen amaieran. Baina ez gara engainatu behar: denbora askorik ez zidaten kendu, baina zirkuitua lau zelako batez ere. Aurre-aurrean daudenekin badago aldea, haiek benetako profesionalak direlako. Gutxi dira, baina badira. Eta igartzen da aldea.

LUIS MARI GISASOLA ITURRICASTILLO

(I. URTEURRENA: 2019-I-23)



“Betirako gure bihotzetan” —ETXEKOAK—

Bere aldeko URTEURREN MEZA egingo da urtarrilaren 26an (domekan), 12.00etan hasita, San Andres parrokiari.





FERNANDO SOLANA: "Eibarko txokoak".

"Quitamiedos" Kulunka antzerki taldearen laugarren sormena da. Konpainia 2010ean sortu zuten Garbiñe Insausti eta Jose Dault-ek, eszena-mintzaira desberdinekin esperimentatzeko asmoz eta maskara-antzerkian eta testu-antzerkian espezializatuz. "Solitudes" lanarekin Espainiako antzerkiaren sari nagusia, Antzerki Ikuskizun Onenaren Max Saria irabazi zuten. Datorren astean, urtarrilaren 31an Coliseoan izango dira, Iñaki Rikartek sortutako eta zuzendutako "Quitamiedos" antzezlan poetiko, dibertigarri eta hunkigarriarekin, "Quitamiedos"-en gure bizitzako gai garrantzitsuak aipatzen dira: bizitza, heriotza, maitasuna, aitatasuna, suizidioa...



IÑAKI RIKARTE (egile eta zuzendaria):

"Quitamiedos-en heriotzaren bidez bizitzaz hitz egiten dut"

- *"Topaketa" bati buruzko obra bat da, bizitzaren hausnarketa bat, poetikaz beteriko jolas eszenikoa. Eta taula gainean Jesus Barranco eta Luis Moreno aktore madrildarrak izango dira.*

Aktoreak ez dira konpainakoak, baina lan honetarako oso aktore bereziak behar genituen, eta Barranco eta Moreno aspalditik miresten ditugu. Madrilgo Teatro de la Abadiarekin lotuta daude eta lan hau aitzaki ezinhobea izan da eurekin lan egiteko.

- *Eurentzako idatzitako istorioa da?*

Ez, lan hau orain dela 8 urte inguru idatzi nuen. Eta orain arte kajoi batean egon da gordeta, bere unearren zain. Joan den urtean Kulunkari lana martxan jartzea proposatu nion. Kulunkarekin maskara ikuskizunak zuzendu izan ditut, eta oso harreman estua daukagu. Ekoiztera animatu ziren, eta taldea osatzen hasi ginenean ak-

toreak Jesus Barranco eta Luis Moreno izan behar zirela pentsatu genuen.

- *Ez dago zalantzarik polifazetikoa zarela. Publikoarentzat oso aurpegi ezaguna zara, zinean, telebistan eta antzerkian egin dituzun hainbat lanengatik. "Quitamiedos"-en antzeztea besterik ez zaizu falta...*

Idatzi, antzeztu eta zuzentzeraren ofizioaren muina berdina da. Beste norbaiten azalean jartzea, alegia. Nik behintzat horrela ikusten dut. Lan honetan aktore bezala jarduteko aukeran pentsatzen egon nintzen, baina testua hain bitxia izanik zuzendari gisa lan egitea erabaki nuen.

- *Zer kontatzen duzu?*

Bi pertsonaia dira, hildakoa eta bere guardako aingerua, eta euren arteko topaketa bat da, existitzen ez den mometu batean. Beraz, zientzia-fikzioa da. Hala ere,

jendeari oso gertukoa egiten zaio. Guardako aingeruaren figurak eta heriotzaren inguruko mitologia horrek asko balio digu bizitzaren inguruan hitz egiteko. Hori da niri interesatzen zaidana.

- *Istripu bat gertatzen da eta errepedeko "quitamiedos"-aren ondoan ematen da topaketa hori.*

Kokapena, bide-bazterra, metaforikoa da. Bide-bazterrak transizio-guneak dira, eta heriotza eta bizitzaren arteko gune hori ere metaforikoa da.

- *Seria ematen du gaiak, baina umorea ere badago...*

Umorea ezinbestean beltza da, baina ez da oso konplejua eta ez da gordinerietan sartzen. Gaia nahiko gordina da berez. Askotan kontrasteak oso ondo funtzionatzen du.

- *Egia da erabiltzen duzuen hikuntza oso landua dela?*

Bai, baina ez asko. Lehen bertsioa poetikoagoa zen, baina gero lauagoa izan behar zuela pentsatu nuen. Horregatik berri-datzi nuen eta poesia asko kendu nion. Iruditu zitzaidalako proposamenak eta egoerak berak bazeukala nahikoa.

- *"Solitudes" lanarekin Max Saria jaso zenuten 2018an. Ateak zabaldu dizkizue?*

Ez zaizkigu funtzio gehiago atera, baina gure saioetara jende gehiago etortzen dela igarri dugu. Kontua oso larria da. Bartzuetan oso publiko gutxi egoten da antzokietan, oso komertziala ez bada. "Solitudes" maskara ikuskizun bat izanik, antzokiak beteta ikustea plazer bat da.

Jesus Barranco eta Luis Morenok antzeztzen duten lana gazteleraz da.





ARCANGEL
(flamenko abeslaria)

“Flamenkoak ondo onartzen ditu abangoardiako musika generoen ñabardurak”

Flamenkoak duen izen handienetako bat da Arcangel. Huelvako abeslariak ospea hartu zuen 15 urterekin flamenkoaren munduan hasi zenetik, eta tradizioaren eta abangoardiaren artean bikain moldatzen da. Gaur bertan kontzertua eskainiko du Coliseoan, 20:30ean, Dani de Moron eta Agustin Diasera lagun dituela gitarra eta perkusioan, hurrenez hurren.

- Zer moduz aritzen zara flamenkoa horrenbeste errotuta ez dagoen tokietan?

Niretzat gauza bera da toki batean edo bestean jotzea, toki bietan presioa sentitzen dudalako. Flamenkoa errotuta dagoen toki batean jotzen dudanean, publikoan dagoen jendeak zer entzun izan duen dakidanez, flamenkoaren ezagutza duen giro horren presioa sentitzen dut. Bestetik, flamenkoa errotuta ez dagoen toki baten jotzen badut, ikuskizuna ikusterat datorren jendeari berriz bueltatzeko gogoia sortzeko presioa sentitzen dut, ez delako erraza.

- Publikoaren erantzuna antzekoa izaten da kasu bietan?

Ezberdinak dira. Flamenkoaren zaleek harengatik handiak egiten dizkiete artistei, horrela adierazten dutelako euren poza eta alaitasuna, eta tradizio flamenkoa ez duten tokietan gutxiago ikusten da hori. Beste barik, ez daudelako artistei euren poza horrela adierazteko ohituta.

- Nola ulertzen duzu flamenkoa?

Tradizio zoragarria duen musika da flamenkoa. Batetik, babestu egin behar dugu; eta bestetik, sasoian sasoiko testuingurutik kanpo ez geratzeko eman behar zaizkion ñabardurak eskaini behar dizkiogu. Flamenkoak ondo onartzen ditu musika-genero abangoardisten ñabardurak. Iraganean hanka bat eta etorkizunean beste bat edukitzen saiatzen naiz, eta burua beti zerumugara begira.

- Hori kontuan izanda, nola mantentzen duzu oreka?

Funanbulista izango banintz moduan. Dibertitzen eta ondo sentiarazten nauten gauzak egiten bilatzen dut oreka. Tradizioa errespetatzen eta flamenkoa mugimenduan dagoen artea dela jakiteko gutxieneko ikuspegia edukitzen saiatzen naiz, ezin garelako sistematikoki beti berdina errepikatzen egon.

- Zein puntutara arte berritu daiteke flamenkoaren barruan?

Ez dut berrikuntzan sinesten, eraberritzean baizik. Gauza guztiak zerbaiten ondorio direla uste dut eta gure ikus-

puntua ematen diogu gauza bakoitzari. Oso beharrezkoa da flamenkoak prozesu ebolutiboa izatea. Prozesu hori ez da gertatzen guk horrela izatea nahi dugulako, nahi ez dugun arren berdin gertatuko delako. Artea pertsonei atxikita dagoen zerbait da, eta aldaketa eta metamorfosiak izaten ditu ezinbestean. Hori horrela da eta ezin zaio buelta gehiegirik eman, beste gauza bat da guk nola bideratu ditzakegun aldaketa horiek.

- Flamenkoaren mundua mesfidati agertzen da aldaketan aurrean?

Ez bakarrik flamenkoaren mundua, orokorrean gizartea mesfidati agertzen da aldaketan aurrean. Gaur egungo buru ilunek uste dute homosexualak gaixorik daudela, adibidez. Hortik abiatzen bagara, pentsa zer gertatu daitekeen musikan.

- Nolako ikuskizuna eskainiko duzu Eibarren?

Tradizioari eta abangoardiari begiratzen dion ikuskizuna izango da. Flamenkoarekin egin dezakegunaren abaniko zabala erakusten saiatuko gara.

2020ko Portalea Musika Kluba domekan abiatuko da



The Kaboons taldeak zabalduko du aurtengo programazioa etzi, 19:30etik aurrera, Portalean eskainiko duen kontzertuarekin. Prezioa, ohikoari jarraituz, 10 eurokoa izango da (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). The Kaboons Bartzelonako taldea 2014an sortu zen eta 50. hamarraldiko azken urteetako rock and rollaren eta surf rockaren soinuari emana da. Mundu osoko jaialdi eta agertokietan erakutsi dute euren zuzeneko basatia, indarrez betea, eta “Right Track, Wrong Way” iraupen luzeko

azken lanak kalitate handiko piezak biltzen ditu. Laukotea fenomeno hutsak osatzen dute: Matt Olivera abeslariak, El Lega gitarristak, Xabi Carajillo baxu jotzaileak eta Jesus Lopez bateriak. “Rockabilli ezin azkarragoekin batera, beste gai lasaiago batzuk” joko dituzte oraingoan ere, “perfekzioetik oso gertuko lanean”. Portalea Musika Klubaren eskutik, otsailaren 9an The Neatbeats taldekoak etorriko zaizkigu eta martxoaren 15ean, berriaz, Los Saxos del Averno taldeak emango du kontzertua.



Juana erreginari buruzko antzez- lana eguaztenean Coliseoan

Eguaztenean "Mi reina Juana" antzezlana taularatuko du Helduen Hitza antzerki tailerrak Coliseo antzokian, 19:00etan, aurrerago Donostian parte hartuko duen Eibarko La Novena-lkaste taldearekin egindako kultur elkartrukeari esker. Mariam Losadak zuzenduta, Maria Sanchez, Itziar Olaizola, Espe Unanue, Ana Ayerdi, Agurne Fernandez, Joaquin Mendia, Rosalia Formoso, Maria Octavia Gonzalez eta Kontxeta Perea antzezleek hartuko dute parte lan honetan. Kontatuko duten istorioa, berriz, Juana erreginarena da: gutxietsia eta gaizki hartua, Gaztela-Leongo Juana erreginak 46 urte eman zituen Tordesillasen, etxean sartuta, 1555ean hil zen arte. Bere senarra izan zen Fernando erregeak lehenengo eta Carlos V.a bere semeak ondoren, biak ahalegindu ziren beti boteretik urruti egon zedin. Sarrerak 5 euro balio du.

Kurrintxo txerriaren abenturak Zapatuko Ipuinaren eskutik

Bihar 18:00etan "Kurrintxoren abenturak" ipuin kontakizuna eskainiko dute Umeen Liburutegian, Zapatuko Ipuina egitasmoaren baitan. Saioa 3 urtetik gorako haurrentzat pentsatuta dago eta kontalaria Xabier Terrones izango da. Kontakizunaren sinopsia honakoa da: Kurrin txerrikume ausarta eta pittin bat burugabea da. Egun batean, bere amak basora bidaltzen du belar batzuen bila, baina jolasean behar baino gehiago ibili ondoren, Kurrin galdu egiten da. Kezkatuta, noraezean ibili eta



gero, animalia harrigarri batzuekin topo egingo du eta, haien bitartez, irakaspenez baliozko batzuk jasoko ditu, bai eta abentura arriskutsu eta harrigarri batzuk biziko ere. Ipuinaren helburua umeen eskubideen aldarrikapena eta bullying-aren aurkako deia egitea da eta, horretarako, denak espezialak garela eta, beraz, ume guztiak errespetuz tratatu behar direla transmititzen ahaleginduko da ipuin kontalaria. Sarrera doan izango da.



Santa Ageda batzen ...eta kitto!-rekin

Herriko beste hainbat taldek egiten duten moduan, ...eta kitto! Euskara Elkaratek ere Santa Ageda bezpera ospatu nahi du aurtien, otsailaren 4an. Eibartar guztiei egiten diegu dei kalejiran parte hartzeko. Arratsaldeko 17.00etan ...eta kitto!-n entsegu txiki bat egin ostean, Estaziño kalerantz abiatuko gara 17:30ak aldera. Ibarburutzen geldialdia egin eta gero, berriz ere jaitsiko gara Urkizura. ...eta kitto!-n amaituko dugu mokaduxoa hartuz. Baserritar jantzia edo zapia eta makila ekarri mesedez. Parte hartu nahi baduzue deitu aldeztu aurretik 943200918 telefonora.

Umeendako zinea

Bihar arratsaldean, 18:00etan, "El Grinch" umeendako filma emango dute El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan). Sarrera doan izango da.



San Blas ikastaroa

Arrate Kultur Elkaratek sanblasak egiten ikasi nahi dutenentzat ikastaroa antolatu du. Otsailaren 1ean izango da, 11:00etatik 13:00era, Portalean (sukaldean) eta Edurne Zenarruzabeitiak emango du. Informazioa eskatzeko zein izena emateko zuzenean joan daiteke Arrate Kultur Elkartera edo, bestela, 638284912 telefonora deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi.

FELISA ZUBIAURRE ARRIZABALAGA

-Ramon Agirregomezkortaren alarguna-

8. urteurrena (2012-I-29)

*"Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"*

ETXEKOAK



Elikadura osasungarria eta teknologia uztartzen dituen ikastaroa

Teknologia eta sukaldaritza uztartzen dituen "Gastrotek 4.0" izeneko tailerra antolatu du Udalak, 18 urtetik gorakoentzat. Azaldu dutenez, "teknologia hastapen mailan emango da, eza-



gutza gutxi edo oso gutxi dutenentzat. Asmoa elikadura osasungarria sustatzea eta teknologia sukaldaritzarekin uztartzea da eta, horrekin batera, helduen aisialdian modu aktiboan gozatze-ko aukerak zabaldu nahi ditugu". Ikastaroa otsaileko sei egunetan (11, 13, 18, 20, 25 eta 27an) izango da, Portalean (batzartokian eta sukaldean), 17:00etatik 20:00etara eta klaseak internet bidezko irakaskuntza eskaintzen duen Arratsateko e-kosten enpresakoek emango dituzte, gaztelaraz (aipatutako egunetatik kanpora ikastaroak on line egiteko beste 9 ordu izango ditu). Ikastaroak irauten dituen hiru asteetan, ikasle bakoitzari orde-nagailu portatil bat lagako diote maileguan. Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa da Eibarren errolatuta daudenentzat eta 50 eurokoa, berriz, kanpokoentzat. Informazio gehiago eskatzeko eta izena emateko Pegorara jo daiteke edo, bestela, eibar.eus Udalaren web orrian begiratu.

"Eduyoga eta jolas kooperatiboak" eta eskalada tailerrak antolatu ditu Udalak

Udalak Eduyoga eta Jolas kooperatiboak tailerra antolatu du 2015. urtean jaiotako haurrentzat (4 urteko haurrentzat, heldu batek lagunduta). Otsailaren 1ean eta 8an izango da, Portalean (3. solairuan) eta orduetegi bi daude aukeran: 16:45etik 18:00etara edo 18:15etik 19:30era. Tailerra Ainhua Muniategik emango du, euskeraz eta prezioa 15 eurokoa da Eibarren errolatutakoentzat eta 30 eurokoa, berriz, Eibartik kanpokoentzat. Jolas kooperatiboan helburua agresibitate adierazpenak murriztea eta ego-kiak indartzea da eta Eduyogak, berriz, balioei laguntzeko eta pos-tura-ohitura egokiak berreskuratzeko asmoa du.

Horrekin batera, eskalada tailerra ere antolatu dute, kirol horretan murgildu nahi duten Lehen Hezkuntzako ikasleentzat (3., 4., 5. eta 6. mailakoentzat). Ipurua Kiroldegiko rokodromoan izan-



go da, otsaileko domekaren batean (hainbat egun eta ordu dau-de aukeran), Gipuzkoako Mendizale Federazioaren eskutik (eus-keraz izango da). Eibarren errolatuta daudenek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta besteek, berriz, 10 euro.

Tailerretan izena emateko epea astelehenera arte egongo da zabalik eta Pegorara joan behar da edo, bestela, eskaera elektro-nikoki egiteko aukera ere badago (horretarako derrigorrez eduki behar da ziurtagiri digital bat edo B@K-Q delakoa). Informazio gehiago nahi izanez gero 943 708 435 telefonora deitu daiteke.



Musika Bandaren kontzertua domekan Coliseoan

Eibarko Musika Bandak kontzertua emango du, domekan, 12:30ean Coliseo antzokian. Carlos Sanchez-Barbak zuzendu-ta, honako egitaraua eskainiko dute: "Bidasoa" (Jose Larruquert), "La leyenda del beso" (Soutullo y Vert), "Queen in concert" (konp. Jay Bocook), "The cream of Clapton" (konp. Ron Sebregts) eta "Robin Hood Prince of Thieves" (konp. Paul Lavender).

Serigrafia tailerra hartuko du ...eta kitto!-k otsailaren 11n

Illunabarrian, ...eta kitto! Euskara Elkartearen ekime-naren barruan serigrafia tai-lerria egingo da otsailaren 11n (martitzena), 18:30ean ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 so-lairuartera). Arima Cooltour-en eskutik garatuko den saio-an oihalezko poltsetan mezu, eslogan eta irudiak estapan-tzen ikasiko dute partehar-tzaileek, horretarako serigra-fiaz baliatuta. Tailerrak 3 eu-roko prezioa dauka eta izen-ematea astelehenean zabal-duko dute. Interesa dutenek otsailaren 7ra arte izango dute izena emateko aukera, ...eta ki-tto!-ra joanda edo 943200918 telefono zenbakira deituta.





Anari SORALUZECO
Gaztetxean

Azkoitiko abeslari eta musikagileak kontzertua eskainiko du gaur Sorraluzeko gaztetxean, 20:00etatik aurrera. Bere bakarkako lehenengo diskoa 1996an kaleratu zuen eta, ordutik, beste bost disko grabatu ditu: Habiak, Zebra, Irla Izan, Zure aurrekari penalak eta Epilogo bat. P. J. Harvey, Thalia Zedek, Nick Cave edo Bob Dylan bezalako egileek eragin nabarmena izan dute beragan eta egungo euskal musikagintzaren panoraman ahots berezienetako da. Talde lana alde batera utzita, bakarka arituko da Sorraluzeko kontzertuan, bere alde pertsonalena erakutsiz. Sarrerak 5 eurotan egongo dira salgai.



Herrixa Dantzan
ELGETAKO Espaloian

Bigarren izango dira Gaskoiniako herri-dantzak Joan Francés Tisnèrrekin Elgetan. Iazkoan izan bazinen, berriz gozatzeko aukera; ez bazenuen ezagutu, hona bigarren aukera. Domekako Espaloia kafe-antzikoki egitaraua 18:00etan hasiko da, iazkoak gogoratzeko saioa eskainiko duen dantza tailerarekin. Dantzan ikasi programaren baitan antolatuta, 5 euro ordaindu beharko da. 19:00etan, sarrera librearekin, bal gascon edo dantzaldi gaskoina egingo da, ohiko balts, polka, schottisch eta mazurkarekin lagunduta.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Tomas Gutierrez Martin. 78 urte. 2020-I-17.
- Juliana Gonzalez Gonzalez. 73 urte. 2020-I-18.
- Fernando Iso Taapken. 51 urte. 2020-I-18.
- Felix Rojas Alonso. 77 urte. 2020-I-19.
- Andoni Jaka Zumarraga. 95 urte. 2020-I-19.
- Eusebio Gorritxategi Agote. 63 urte. 2020-I-19.
- Amaia Irazola Agirretxea. 96 urte. 2020-I-20.
- M^a Begoña Cabo Aguado. 54 urte. 2020-I-20.

jaiotakoak

- Nahia Sanchez Valencia. 2020-I-7.
- Iera Minondo Garcia. 2020-I-14.
- Haran Muñoz Luis. 2020-I-18.
- Anas El Yazizi El Baalaoui. 2020-I-19.
- Ekain Agirrebeña Alberdi. 2020-I-20.

farmaziak

- Barixakua 24
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Zapatua 25
 EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Domeka 26
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 27
 EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Martitzena 28
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguaztena 29
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 30
 EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Barixakua 31
 EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2020AN-
Barandela (Z. Agirre, 4)

telefono
jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

1	8	4	6	3	9	2	5	7
6	3	5	2	7	4	1	9	8
9	7	2	1	5	8	6	3	4
5	6	7	9	4	2	8	1	3
4	2	8	3	1	6	5	7	9
3	1	9	5	8	7	4	2	6
2	5	6	4	9	3	7	8	1
8	9	1	7	6	5	3	4	2
7	4	3	8	2	1	9	6	5

8	2	6			9			
7				1			4	5
		1				9		
2		8		5	1			
			3		2			
			4	6		5		2
		3				4		
9	4			8				6
			6			7	5	9

Barixakua 24**KONTZERTUA**

20:30. Arcangel Huelvako flamenko abeslaria. 15 euro (10'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Zapatua 25**GABONETAKO HAUR PARKEA**

11:00/14:00 & 16:30/20:30. 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

TAILERRA

16:00. Bihotz-Biriketako Susperzte tailerra (familiar). DYaren Eibarko Ordezkaritzan (Pagaegi, 5).

ATE IREKIAK

16:30/19:30. Ate irekien jardunaldia. San Andres herri ikastetxean.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Kurrinxoren abenturak", 3 urtetik gorako umeei zuzendutako ipuin-kontakizuna, Xabier Terronesen eskutik. Sarrera doan. Umeen liburutegian.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "El Grinch" filma. Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

Domeka 26**ATLETISMOA**

10:30/13:30. Bolunburu Memorialaren 69. edizioa. Arrateko Olabe zelaian. Eibarko Klub Deportiboak antolatuta.

**KONTZERTUA**

12:30. Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Zuzendaria: Carlos Sanchez-Barba. Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45. Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

KONTZERTUA

19:30. The Kabooms taldea (Portalea Musika Kluba). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalean.

**Astelehena 27****ELKARRETARATZEA**

12:00. Jubilatu eta Pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 28**IKASTEN**


10:00. "Aldizkari satirikoak XIX. mendean" hitzaldia (euskeraz), Mikel Alberdiren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

TAILERRA

18:30. "Tupper osasungarriak", Mireia Alberdi nutrizionistarekin. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Portalean (sukaldean).

**Eguaztena 29****ANTZERKIA**

19:00. "Mi reina Juana" (Helduen Hitza Antzerki Tailerra). 5 euro. Coliseoan.

**EIBARKO KANTUZALEAK**

19:00. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 30**IKASTEN**

10:00. "56tik 75era bitarteko gerraostea, Francoren heriotzarekin" hitzaldia, Antonio Riveraren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

18:00. Dantza taldearen entsegu. Untzagako jubilatuetan.
19:30. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokaletan.

ENTSEGU IREKIA

20:30. Santa Ageda kalejiran (otsailak 4an) Sostoa abesbatzarekin batera irten nahi dutenentzat entsegu irekia. Musika Eskolan.

**Erakusketak****Otsailaren 9ra arte:**

– "Calibre 16" T.A.C.O. Mexiko Arte Garaikide Tailerretako artisten kolektiboa (**Portalea**)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, JOSU, 11 urte bete dozuz-eta. Oso ondo ospatu lagunekin. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ISLAM, eguaztenian 8 urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, JON!!, astelehenian 8 urte beteko dozuz-eta. Musuak famelixa guztiaren eta, batez be, Liberen partez.



Zorionak, IRAIA, haraiñegun gure etxeko txikixak urtetxua bete zabalako. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Xabin partez!!!



Zorionak, NAHIA, atzo 8 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat aitta, ama eta famelixaren partez.




Zorionak, OIER, astelenian 2 urte egingo dozuz-eta. Famelixakuen eta, batez be, Josu eta Danel lehengusuen partez.



Zorionak, ADRIAN Larred, hillaren 21ian urtetxua egin zenduan-eta. Asko maite zaittuen famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, hillaren 19xan 14 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Iraiaren partez.




Zorionak, ALEX!!! Eguaztenian 9 urte egin zenduaz-eta!! Musu erraldoi bat aitatxo, amatxo eta Liberen partez.



Zorionak, LUKA!, hillaren 20xan 8 urte bete zenduaz-eta. Patxo potolua, printzes!



Zorionak, XUHAR!! Domekan 5 urte egingo dozuz-eta. Musu asko famelixaren eta, batez be, Julene, Euken eta Paulen partez.



Zorionak, POL, bixar urtetxua egingo dozu-eta. Patxo potolo asko etxekuen eta, batez be, Mara eta Oxelen partez.



Zorionak, HAIZEA (astelehenian 10 urte egingo dozuz) eta PAULE (12xan 9 urte egin zenduaz-eta). Aitxitxa Eduardo, amama Itziar eta etxeko danon partez.

Zorionak, LIBE eta LUCIA!, hillaren 14an eta 23an urtiak egittiagaittik. Zenbat momentu on alkarrekin. Musu erraldoia bixontzat famelixaren partez.

Ongi etorri, IERA Minondo Garcia. Zorionak, amatxo eta aitatxo. Famelixaren eta, batez be, Pello, Nile eta Polen partez.



zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

25ean: 19,45, 22:30

26an: 20:00

27an: 20:30

"El oficial y el espía"

Zuzendaria: Roman Polanski



(2 ARETOAN)

25ean: 17:00, 19,45, 22:30

26an: 17:00, 20:00

27an: 20:30

"Jojo rabbit"

Zuzendaria: Talka Waititi



(ANTZOKIAN)

25ean: 17:00⁽¹⁾, 19,45, 22:30

26an: 17:00⁽¹⁾ (Aretoan), 20:00

27an: 20:30

"Te quiero, imbécil"

Zuzendaria: Laura Maña



(ANTZOKIAN)

25ean: 17:00

26an: 17:00

"Bobby, el erizo"

Zuzendaria: Jianming Huang



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukalde eta komunak. 85 m². Berogailuarekin. Tel. 615-781231.
- Etxebizitza salgai Legarre-Gainen. Egoera eta prezio interesgarrian. Tel. 622-755365.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala saltzen da Eibarko erdialdean. 100 m². Akademia edo fisioterapia-kontsultarako egokia. Tel. 606-065518.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 602-133720. Elvira.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari jarduteko. 7 urteko esperientzia. Ziurtagiria eta erreferentziak. Tel. 603-514085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 632-098382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-483249.
- Gizonezkoa eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 603-645611.
- Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 643-978069.
- Eibarko neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 680-121262.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Ziurtagiriarekin. Tel. 667-060292.
- Terapeuta okupazionala eskaintzen da etxez-etxe bere beharra dutenen bizitzakalitatea hobetzeko. Adin guztiarako. Tel. 686-321414.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-159971.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-874525.
- Mutila eskaintzen da saltzaile, harrera eta administrazio lanak egiteko. Ingeles eta frantses ezagutzarekin. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 643-076427.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta pintore moduan. Tel. 643-929576.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. Tel. 643-398596.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (etxeak, soziedadak...). Tel. 674-713262.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 612-201719.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 657-209119.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiriarekin. Tel. 631-389567.
- Emakumea eskaintzen da pisuak, lokalak edo tailerrak garbitzeko, nagusiak zaintzeko eta sukaldari jarduteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-035976.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-009215.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Esperientzia. Tel. 631-768803.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-439959.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian jarduteko. Tel. 632-423521.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-587617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-049781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-501003.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 689-003537.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta dendari moduan. Administrazio-ikasketak eta esperientzia. Tel. 675-847035.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 605-598999.
- Gizon arduratsua eskaintzen da baserriko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 697-666992.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 642-597600.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-268671.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Ordu-tegi malgua. Tel. 679-912841.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Asteburuak barne. Tel. 612-562586. Diana.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 643-892696.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Orduka. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Arratsaldez eta asteburuetan. Esperientzia. Tel. 632-098382.
- Eibarko neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 699-306873.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 655-094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 643-278344.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 632-329213.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-526228.

4.2. Langile bila

- Emakume interna behar da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Berehala hasteko. Ahal bada, ikastaro edo ziurtagiriarekin. Tel. 656-758793. Deitu 19:00etatik aurrera.
- Dentista eta hagineterako higienista behar dira. Bidali curriculum: clinicadental.gestioncv@hotmail.com
- Emakumea behar da arratsaldetan umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Jornada erdirako. Tel. 943-206977.
- Abentura jardueretarako (paintball) monotoreak behar dira asteburuetarako. Eusara jakitea beharrezkoa da eta gidatzeko baimena izateko baloratuko da. Tel. 660-450245. Ainhoa.
- Ileapaintzailea behar da asteburuetan Elgoibarko ileapaindegi baterako. Tel. 943-246225.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Hyundai KONA ECO gama



Hyundai PersonAll

Partikularrentzako rentinga,
dena barne.

293 €tik aurrera/hilean

BEZa barne. 48 hilabete. 10.000 km/urteko
Sarrerarik gabe.

KONA Hibrido elektrikoa

Hemen da **Hyundai Konaren ECO gama**, gidatze hibrido eta elektrikoan berrienaz goza dezazun. Mugi zaitetz mugarik gabe Kona Elektrikoaren **619 km-ko autonomiarekin**, edo gozatu Kona Hibrido Berriaren **Bluelink konektagarritasunarekin**. Hilean **293 eurotik aurrera** eskuratu ezazu **Hyundai PersonAll** partikularrentzako rentingarekin, dena barne.



DARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.DARSOCAR.COM

GRUPO EASO MOTOR

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

Erakusketa berria
ARRASATE
San Andres Auzoa, 6
943 79 70 06

HYUNDAI

5 BERMEA KM MUGARIK GABE

8 BATERIA BERMEA

Hyundai KONA HEV gama: CO²-igorpen konbinatuak (gr/km): 114-122. Kontsumo konbinatua (l/100 km): 5-5,4. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO² emisioak (gr/km): 90-99, NEDC ziklo korrelatuaren arabera lortuak. Hyundai KONA EV gama: CO²-igorpen konbinatuak (gr/km): 0 erabileran. Elektrizitate-kontsumoa (Wh/km): 150 (bateria: 39,2 kWh) - 154 (bateria: 64 kWh). Autonomia erabilera konbinatua (km)* (64kWh bateria) eta hirian (km)* 619 (64 kWh bateria).

Kona Hibrido 1.6 GDI 103,8 kW (141VC) DT Klass modeloa, 293 €/hileko kuotarekin, BEZa barne, 48 hilabetez eta 10.000 km/urteko. Renting-eskaintza honek 2020/02/29ra arte balio du Penintsulan eta Balearretan. Beste epe eta kilometraje batzuetarako. Eredu bistaratu: Kona Hibrido Style. Arriskua baliozkotzen duen eragiketa. Hyundai Renting produktua Aval Service Lease S.A.k eskaintzen du (*Autonomia ofiziala, WLTP Gidatze Ziklo Berriaren arabera. Gidatzeko moduak, baldintza klimatikoek, errepidearen egoerak eta aire girotuaren edo berogailuaren erabilerak baldintzatuko dute benetako autonomia).

Eibarko La Salle



Matrikula zabalik: Urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

943202133-943121698
www.lasalleibar.com



2 urtetik 16 urtera

Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Urtarrilaren 27tik
Otsailaren 7ra



EIBAR BHI
ISASI, 37

943 89 92 21
DBH 1 eta 2



EIBAR BHI
JARDINETA, 3

943 89 92 62
DBH 3, 4 + Batxilergoak



AMAÑA

688 68 72 89



ARRATEKO ANDRA MARI

943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

2020-2021 ikasturtea

Zatoz gurea!
Ikastera,
Jolastera, hazterera...

Aurrematrikula / 2020ko urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra

ONLINE AURREMATRIKULA / www.euskadi.eus/hezkuntza

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



SAN ANDRES

943 20 79 95



BAIKARA

943 12 17 78